



Constantino, Carusorekin lehiatu zen Algortako tenorearen historia eta garrantzia, akorduan. ▶22-23

Amelia Barquin irakaslearen ustez, «genero-identitatea askatasunez erabakitzen utzi behar zaie umeei». Berbaldia eman du Algortan. ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



50. zenbakia
2016ko
otsailaren 25etik
martxoaren 2ra arte

«Irla txikia sortu dugu Leioan»

Artedrama arte eszenikoen plataformak antolatutako Kultur Maratila zikloak bost urte beteko ditu aurtan; Kultur Leioagaz elkarlanean egiten dute; bertan dute egoitza ere. ▶16-17



KULTURA URIBE KOSTA

Gazteen bertso-derbia

Uribe Kosta sailkatu da Bizkaiko Bertsolari Gazteen BBK Sarietaren finalaurrekoetarako, Uribe Butroe gailendu ostean, Sopelan. ▶11



X. STOCK EUSKADI

OPARIAK
SORPRESAK
ZOKKETAK
ETA ABAR!

**EUSKADIKO
OUTLETik
HANDIENA**

MODA
ELIKAGAIAK
ETXEBIZITZA
KIROIA
LURRUNAK
UMEAK
APAINGARRIAK
ETA ASKOZ BEHAGOI!

Martxoak 4, 5 eta 6
11:00etatik 21:00 arte

Garagardo azoka & Food Trucks

6.000€ SARIETAN
400€ BI DROURO BERTAN EGONDA

SUPERDESKONTUAK

Informazio gehiago:
Jarraiguazu:

www.stockeuskadi.com
facebook.com/stockeuskadi
info@stockeuskadi.com
@stockeuskadi

Tel. 944 458 222
@stockeuskadi

Algortako Fadura kiroldegirako sarbide berri bi eta ordezeko aparkalekuak gaitu ditu Getxo Kirolak-ek. ▶2

Herritarrentzako arreta-zerbitzua, parkingak eta euskara-planak aurreikusi ditu Erandioko Udalaren legegintzaldi-planak. ▶5

Leioa itsasadarretik argazki-lehiaketa antolatu du Udalak, Portu Fundazioagaz. Apirilaren 30era arte da epea. ▶6

Lointek Girora joango da. Txirrindularitza-talde sopeloztarrak Eider Merinori aukera gehiago emango dizkio. ▶18



KOLDO ITURBE MENDILIBAR
EAJren bozeramailea

Romo kultur etxea, Nagusien Etxea baita ere

Azken egunotan Romo-ko Nagusien Etxeari buruz eztabaida sakona berpiztu nahi izan da. Gogoratzen naiz Romo Kultur Etxearen hasierako prozesuaz, alderdi ezberdinetako jakintsuek osaturiko batzorde batek aho batez onartu zuen proiektuaz, era berean, plenoan onartu zena. Ondoren, gizarteratze prozesu zabala eta emankorra eragin genuen.

Romo Kultur Etxea 4.000 m²ko ekipamendu balioanizta izango da, bere osotasunean bateragarria Nagusien Etxeak behar dituen zerbitzuekin; solairu bat eskusiboki nagusiek beraien egitaraua aurrera bideratzeko, sotoa, beraien dantzaldi, antzerki eta hitzaldietarako, herriko liburutegirik handiena bigarren pisuan beraien gozamenarako, hainbat gela beraiek erabiltzeko, azkenengo pisua, azkenik, abesbatza, dantzak, etab erabiltzeko aukeran. Taberna beheko solairuan, beraientzako prezio bereziak mantenduz.

Ibar Nagusien Elkartek mezezi duen espazio duina eta egokia. Beraiekin hitz egin, aurkeztu eta beraien eskaerak guztiz onartu genitueneko adostasunarekin.

Ahazten zitzaidan, bai, 3. pisuan dago, eta zer? Zenbatek dauzkagu gure aitita-amamak erresidentzietan (Leioa, Loiu, Bilbo, etab), ospitaleetako pisu altuenetan, indarrean dauden lege, emergentzi plan, etab guztiak betetzen dituztenak, Romo Kultur Etxe berriak eta Nagusien Etxeko solairuak bezala.

Nagusien Etxea eta Udal Euskaltegia dauden orubeentzat guk helburu bat daukagu, etxebizitza sozialena, besteek zer demontre eskaintzen diote Romoko jendea-ri etxebizitzaren arazoaren irtenbide gisa?

Politikara herria eraikitsera/hobetzera etorri ginen, eta horretan ari gara. ◀

Getxo

Autoak aparkatu guran

Fadura kiroldegirako sarbide berri bi eta ordezkoko aparkalekuak gaitu ditu Getxo Kirolak-ek.

Getxo Kirolak-ek sarbide berri bi eta ordezkoko aparkalekuak ezarriko ditu Fadura kiroldegia-aren alboan, URA Uraren Euskal Agentzia inguru horretan egiten dabilen obren eragina murrizteko. Neurri horiek obrak amaitu arte iraungo dute; hau da, 12 hilabete. Hala, gaur egun frontoien eraikinaren aurrean dagoen sarbideaz gainera, erabiltzaileek aukera edukiko dute erabiltzeko Oicosa etxaldearen poligono zuriko sarbidea (atletismo-pistaren ondoan) eta Iturgitxiko iturriaren inguruan dagoena (errugbi-zelaiaren eta belodromoaren ondoan). Ate bi horiek zabalik egongo dira astelehenetik barikura 16:30etik 22:30era, eta aste-akabuetan, 08:00etatik 22:30era bitartean.

Trafikoari eta aparkalekuari eragiten dieten kalteak arintzeko neurriei dagokienez, Getxo Kirolak-ek Larrañazubiko ibilgailuen depositu zaharrean eta Aiboako Getxo II institutu



Ordezko aparkalekua gaitu dute Getxo II institutuan, besteak beste.

zaharrean behin-behineko aparkalekuak egokituko ditu. Bata zein bestea erabilgarri egongo dira 08:00etatik 23:00etara, eta, guztira, aparkatzeko 200 leku egongo dira. Hori horrela, lanak hasi zirenean zeudenakaz alderatuta, 140 leku gehiago egongo dira aurrerantzean. Behin-behineko aparkaleku horiek seinaleztatuta egongo dira; eta aparkaleku horietatik Fadurako igerilekuetako eta futbol-zelaie-

tako sarbideetara bitarteko ibilbideak oinez egin beharrekoak dira, baina, ez dela 6 minututik gorakoa izango iragarri dute arduradunek. Dena den, Getxoko kirol-elkarteetako arduradunek, ahal den neurrian, Fadurara hurreratzeko autoak ez erabiltzea gomendatu dute. Gainera, beste herrietatik bertaratuko diren klubakaz koordinazioa sendotzea aurreikusi dute, aparkaleku berriak erabil ditzaten. ◀

Berdintasunaren alde hezi dituzte Getxoko 300 ikasle inguru

Getxoko 300 ikasle inguruk parte hartu dute Ecivis elkarteak antolatutako «Berdintasunean Hezten» proiektuan. Ekimenaren helburua izan da 6 eta 8 urte bitarteko neska-mutilak antzerki-forumaren bitartez genero-berdintasunean sentsibilizatzea. Saio horietan, gai eta egoera zehatzak landu dituzte, berbarako: gorputza, emozioak, opariak eta atsedena. Antzerki-forumaren teknikari esker, ikasleen artean gizona eta emakumei ezarritako rolen eta berdintasunean heztearen eta sentsibilizazioaren garrantzia atzeman dute, genero-estereotipoak gainditu ahal izateko. Ekimenak Utopian sormenerako gunearen partaidetza eta Getxoko Udalaren laguntza izan du, eta bederatzi hilabetearen garatu da: 2015eko maiatzetik 2016ko otsailera arte, hain zuzen ere. Denbora tarte horretan, J.B. Zabala, Larrañazubi, Romo, Zubilleta eta Nuestra Señora de Europa ikastetxeetako umeek parte hartu dute (%62 mutilak, eta %38 neskak). ◀

Emakumeen ahotsak «aktibatzeko» tailerra, prest



Saioak Gobela kiroldegian izango dira.

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, «Aktibatu zure ahotsa» doa-ko tailerrerako izena emateko epea zabaldu dute. Tailerrok Jabekuntza Eskolan egindako heziketari jarraipena dira, eta egindakoa ikusaraztea ahalbidetuko du, 4 orduko iraupeneko saio bigaz, eta *performance* batez. Helburuak dira ahotsen jabekuntzaz kontzientzia hartzea; andrek eskura dituzten tresnak erabiltzea; taldean arte eta aldarri-

kapen ukituko ekintza sortzeko sormen kolektiboa esperimintatzea; auto-estimua areagotzea; eta parte-hartzaileen artean babes- eta zaintza-sare bat sustatzea. Zahira Montalvok gidatuko ditu saio biak, Gobela kiroldegian, hilaren 28an eta martxoaren 5ean, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, hurrenez hurren. *Performance*-a, berriz, martxoaren 6an izango da, 13:00etan, San Nikolas plazan. ◀

Getxo

«Atzerriko gazteen errealitatea ezagutzeko aukera hobezina da»

J. C. Baroja BHI «Erasmus +» proiektuan dabil lanean. Hori horrela, institutuko 20 ikasle Alemaniara joango dira martxoan, bertako errealitatea ezagutzera.

IKER RINCON MORENO ▶

Algortako Julio Caro Baroja BHIko 20 ikasle Alemaniara joango dira martxoan «Erasmus +» proiektuan parte hartzera. Horren helburua da, ingelesa lantzeko baliagarria izateaz gainera, beste herrialde bateko gazteen errealitatea ezagutzeko aukera «ezin hobe» eskaintzen duela, hala uste dute antolatzaileek, «ez da elkartruke soila».

Zer da «Erasmus +» egitasmoa?

Europa osoko proiektu bat da, ikastetxeak nazioartekotze-bidean jarri eta Europa osorako zentro bat sortzea helburu duena.

Zenbat urte daroatzazue egitasmo hori lantzen institutuan?

Duela hogeitaz urte inguru «Comenius Proiektua» jarri zen martxan, gauegun «Erasmus +» izenekoaren aurrekaria dena, alegia. J. C. Baroja BHI «Comenius Proiektuan» hainbat urte aritu ostean, joan den ikasturtean jaio zen «Erasmus +», eta horretan ere buru belarri ari gara lanean.

Azaroan, Alemaniako ikasleak etorri ziren gurera, zelakoa izan zen esperientzia hori?

Oso aberasgarria izan da beste herrialde bateko ikasleekin elkarlanean aritu ahal izatea. Ikasturte honetan, hezkuntza-sistemaren eta lan-merkatuaren arteko harremana, gazteen enplegurako aukerak eta langabeziaren arazoak aztertzen ari gara.

Zenbat egun egon ziren?

Zortzi egun egon ziren gurean ikasle alemaniarrek, eta tarte horretan bertoko hezkuntza-sistema ezagutzeko aukera izan zuten. Horretarako, jardura desberdinak egin genituen gure udalerriko erakunde publiko desberdinak bisitatuz, besteak beste, Faturako Lanbide Heziketako Institutua (oso harrera ona izan genuen bertako irakasle aldetik), Getxoko udaletxea...

Orain, martxoan, bertoko ikasleak Alemaniara joango dira. Zer aurreikusi dute egitea bertan?

Gure helburua lanbide-heziketarekin zerikusia duten lanbideak ezagutzea da. Aldi berean, hezkuntzak eta enpre-



Azaroan Alemaniako ikasleak gurean hartu ostean, 20 neska-mutil Alemaniara joango dira martxoan.

sa-munduak zer-nolako lotura duten aztertu gura dugu.

Zergatik Alemaniara?

Zortzi herrialdek hartzen dute parte: Norvegia, Hungaria, Frantzia, Polonia, Espainia, Grezia, Alemania eta Eskal Herria. Hala, proiektuan hainbat aldagai kontuan izaten dira herrialdea aukeratzeko orduan: hizkuntza, balizko datak, ikasle kopurua... Alemaniaren baldintzak bat zetozenek geureekin, bat egin genuen eurekin,

horregatik gure ikasleak Garbsen herrira joango dira, bisita bueltatuz.

Ikasleak gogotsu daude horretarako?

Gure ikasleen familiek etxean hartu zituzten Alemaniako ikasleak. Orain goan, gureak dira alemaniarren etxetan ostatu hartuko dutenak. Ilusio handia dute bidaiarekin. Batetik, *in situ* gura dutelako proiektuan lanean jarraitu, eta, bestetik, harreman estua sortu delako gure ikasleen eta hangoen artean. ◀

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak
guri izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!
Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

portu zaharra bar
Portu Zaharra kalea 35
48001 Algorta-Gudea
Tf. 94 456 20 35
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK
Eraikuntza zerbitzu integralak
Illeta, 1. 48991 ALGORTA
94 430 52 43 - 607 952 977
rgaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz

**Aste Santuari begira,
ale berezia prestatzen
gabiltza**
Zure taberna, jatetxea edo
aisialdirako zerbitzua iragarri
nahi izatekotan, arin ibili!
944 911 337 | publi@hiruka.eus

**AISSIALDIRAKO ZERBITZUAK
NON LO EGIN
NON JAN**

hiruka

Getxo

Bizikletak Zientoetxen?

PPk eta Ciudadanosek kritikatu egin dute Zientoetxeko errepidean ezarri gura den bidegorria.

Imanol Landa Getxoko alkateak Zientoetxeko bidegorri-tartea, Azkorriko hondartzara doana, kentzea agindu zuen 2011n, horren segurtasuna zalantzan ipini baitzuten auzokide ugariak. Bada, segurtasun hori hobetzeko aukera teknikoak aztertzeko konpromisoa hartu zuen alkateak urte hartan, eta orain, lau urteren ostean, Udalak bizikletentzako bide berri bat sortzea erabaki du, Maidagan kaletik eta Zientoetxeko errepidetik joango dena. Popularrek jakinarazi dutenez, «bidegorri» berria autoak eta bizikletak tartekatze bidea izango da, udalerriko beste hainbat gunetan dagoenaren antzekoa. Horren aurrean, Eduardo Andrade popularrak adiera-



2011n bazter batetik zihoan bidegorria kentzea erabaki zuen Udalak, arriskutsua zelakoan.

zi du sistema horrek «ez duela balio izan» ezarri diren lekuetan, eta ondorioz, «are gutxiago inguru horretan». Popularrek proiektua kritikatu ostean, Getxoko Ciudadanos alderdiko zinegotzia ere «bidegorri» berriaren kontra agertu da: «bi noranzkoak dituen

bidea estuegia da autobusak, autoak, motorrak eta bizikletak elkarrekin ibiltzeko; arriskutsua izango da». Udalak bidegorriak ezartzeko duen sistema ere salatzen du Ciudadanosekoak: «ezin dira edozelan ezarri, eta Zientoetxeko adibide garbia da».

Gobela kiroldegia «hobetzeko» lanak proposatu ditu PPk

PPk Gobela kiroldegia konpontzeko eta hobetzeko lanen «beharraz» ohartarazi du, azpiegitura hori «ero-soagoa eta irisgarriagoa» izateko helburuagaz. Izan ere, popularrek hainbat arazo identifikatu dute kiroldegian; esaterako, azpiegiturak dituen hezetasunak, eta ura modu egokian ezin kanporatzea aldagelek eta dutxek. Halaber, hainbat auzokidek eskatutakoa gogora ekarri dute: tenis eta padeleko zelaiak estaltzea. Era berean, Iñaki Gamero popular getxoztarren bozeramaileak azpimarratu du Gobela kiroldegiko seinaleztapena «hobetu beharra» dagoela, irisgarriagoa izateko. Gainera, irristakorrek diren guneak «tratatutako» beharrezkoak direla gogoratu du, inor jausi ez dadin. Hori guztia dela-eta, PPk mozio bat erregistratu du hurrengo osoko bilkuran eztabaidatzeko. Kirol-azpiegitura horren arazo guztiak aztertu, eta horiek konpontzeko plana egitea eskatzen dute mozioan.

Etxebizitzaren arazoari aurre egiteko plana du EH Bilduk



Udalerriko gazteei begirako alokairuzko etxebizitzaren beharra dagoela uste dute.

Getxoko EH Bilduk bere «Etxebizitza plana» aurkeztu die Udaleko Hirigintzako arduradunei. Koalizio abertzalekoek gogoratu dutenez, euren taldeak «urteak» daroatza etxebizitzaren arazoa lantzen, eta horri aurre egiteko hainbat aukera plazaratzen. Hala ere, aurkeztutako proposamen «batek ere» ez du EAJren oniritzia lortu. Denbora igaro da, eta EH Bilduk jakinarazi duenez, hasi berri den urte honetan, gobernu-taldea «bermatzen ari ez den Etxebizitza planari» ekarpenak egiteko, eta horren inguruan lan egiteko gonbita egin die.

Koalizio abertzaleak hainbat proposamen zehatz aurkeztu ditu etxebizitza sozialean aldeko «politika erreal

bat» bultzatzeko asmoz: Etxebizitza Udal Bulegoa sortzea; Getxon dau-den sustapen publiko zein pribatueta-ko babespeko etxebizitzaren erregistro- edo datu-basea egitea, eskatzaileen erregistroa egin eta horien kontrola bermatzea; Udalak *cohousing* edo kolaborazio-etxebizitza bat egin dezala berehala egitekoa den exekuzio-unitate batean; alokairurako diru-laguntza lerro bat zabaltzea (berezikiki gazteen-tzat); Udalak promotore-lana egitea eta etxebizitza pribatuak udal ondare bihurtzea; Eraikinen Ikuskapen Teknikoak egiteko diru-laguntzak, eta horiek behar bezala egiten direla bermatzeko kontrola; eta etxe hutsen errolda (legeak dioen irizpideakaz).

Getxoztarrek zaborraren % 2 gehiago bereizita batu zuten

Iaz birziklatzeko batu ziren hondakin kopurua %2 handitu da, urteko balantzean jasotako datuen arabera. Guztira, 29.233 tona hondakin batu zen; hau da, 2015ean getxoztar bakoitzak 366 kilo hondakin sortu zituen. Bildutako guztitik, %76,9 jatorrian birziklatzen ez diren hondakinak dira; gainerako %23,1, berriz, birziklatzeko hondakinak izan ziren (papera,

beira, ontziak, pilak...). Kontuak hala, %2 inguru handitu zen birziklatzeko hondakinen gaikako bilketa. Birziklatzeko gai nagusiak (papera, beira eta ontziak) gutxi gorabehera mantendu ziren arren, txatarra asko handitu zen: %555. Hondakin elektriko eta elektronikoen, pilek eta hondakin handiek ere gora egin zuten, %74, %23 eta %10, hurrenez hurren.

Indabada prestatzeagatik, 600 euroko isuna ezarri diote

Urteroko ohiturari jarraituz, iazko urriaren 31n 16. Indabada ospatu zuten Algortan. Guztira, 300 lagun baino gehiago batu ziren San Nikolas plazara, prestatutako egun osoko egitarauaz gozatzen. Ohi den legez, gazteek osatutako batzorde batek antolatu zuen jaialdia; halere, Getxoko Udalak Lander Labajo gazteari 600 euroko isuna ezarri dio, bera ekitaldi horren «arduraduna» zelakoan, «udal baimenik gabeko ikuskizun publikoa» egiteagatik. Labajok azaldu duenez, 16 urte daroatate Indabada egiten, eta denbora tarte horretan, «inoiz ez dugu inolako arazorik sortu». Nahiz eta Indabadan Labajo «inoiz» ez duten identifikatu, dioenez, Udalak «urteak» daroatza gaz-



tea «mehatxatzen» isuna jarriko diola-eta. Indabada «herrikoia» dela azaldu du; «jendeak badaki noiz den, eta harrera oso ona du herrian». Hori dela eta, Udalaren jarrera salatu du gazteak, «euren gabeziaren erantzuna da zigor hori. Ez dute ezer konpondu gura». Halere, «oztopoak oztopo, Indabadak aurrera» jarraituko duela baieztatu du.

Erandio



Astrabuduan eta Altzagan parkingak hobetu eta ugaritzeko aukerak ikertuko dituzte.

Herritarrentzako Arreta Zerbitzua, abian

Legegintzaldi-plana aurkeztu du Erandioko Udal Gobernuak. Joseba Goikouria eta Elena Perezek lau urterako helburu nagusiak ezagutarazi dituzte.

Iazko urriko Udalbatzan iragarri legez, daborduko legegintzaldirako plana aurkeztu dute Joseba Goikouria alkate jeltzaleak eta Elena Perez zinegotzi sozialistak, Erandioko Udal Gobernuaren izenean. Perez «oso pozik» agertu da egindako ahalleginagatik, «lehenengo aldia» baita Erandion horrelako txosten bat egiten dena. Bere ustean, «oinarizko gakoa izan zen hori, gobernu-ituna idaztean: gardentasuna eta parte-hartzea». Berak zein Goikouria azpimarratu dutenez, planari esker auzokideek, langileek eta oposiziozko zinegotziek Udal Gobernuak darabiltzan planak, epeak eta aurrekontuak hobeto ezagutze-ko aukera izango dute. «Gerora ere, kontuak ematea ere erraztuko du: ea zer egin dugun eta zer ez, fiskalizazio-lanak erraztuko ditu», agintarien esanetan. Goikouria argitu due-

nez, udal teknikarien, politikarien eta kontratatutako enpresaren ahaleginari esker egin da plana; 6.000 euroko kostua izan du. 2019ra arte ezarritako helburuen eta ekintzen artean, garrantzitsuenetako bat da Herritarrentzako Arreta Zerbitzua sortzea eta martxan jartzea. Horrek langileak formatzeko beharra ere ekarriko du. Hala ere, zerbitzu berrian moldatzeko ez ezik, Goikouria agindu du «euskara-maila hobetzeko formakuntza» ere izango dutela udal beharginek. Ez da euskaragaz lotutako puntu bakarra. «Herriko kaleetan euskara erabil dadin sustatzea» jo du helburutzat plangintzak, eta hori gauzatzeko tresnak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana eta Erabilera Plana izango dira. Azkenik, Euskararen Aholkulari Batzordea berreskuratu da, bost urtez batu barik izan osten. ◀

Euskara-zerbitzuak zenbait laguntza-deialdi zabalik ditu

Udalerrian euskararen erabile-ura sustatzeko asmoz, Erandioko Udalak ohiko hiru diru-laguntzetarako deialdiak martxan ipini ditu aurtien ere. Hala, daborduko honako laguntzak eska daitezke: euskara ikastekoak; merkataritzan errotuluak, irudi korporatiboa eta webguneak euskalduntzekoak; eta gidabaimena euskaraz ateratzekoak. Euskara ikasteko laguntzetan 15.000 euro inbertituko ditu Udalak. Eskabideak aurkezteko epea zabalik egongo da 2016ko abuztuaren 16ra arte, iazko abuztutik aurtengo uztaile bitartean egindako ikastaroeta-

rako. Bekek ikastaroaren prezio osoa ere har dezakete. Merkataritzan, berriaz, Udalak 2.500 euro erabiliko ditu errotulazioa, irudi korporatiboa edo webgunea euskalduntzen duten enpresa eta dendei laguntzeko. ◀

info+: Erandiokoeuskarazerbitzua.com



Gazteak laneratzeko Hazilan programa bultzatzen dabilta Udalak eta Behargintza

Erandioko Udalaren garapen-agentziak Hazilan proiektua abian jarri du, langabezian dauden gazte kualifikatuei beharra lortzen laguntzeko. Ekimen horren bidez, interesdunek praktikak egin ahal izango dituzte enpresetan. Ekimena zuzenduta dago 20 eta 35 urte bitarteko gazte langabetuei, Erandion errolatuta badaude, eta unibertsitateko edo goi-mailako prestakuntza-ziklo bateko titulua badute.

Beharrea daudenek ere parte har dezakete, ikasitakoaren araberako lana bilatuz gero. Erandioko Behargintzan eman ahal izango da izena martxoan eta uztailean; leku-kopuru mugatua denez, aurretik batzuk aukeratu dituzte, aurkeztutako curriculumetan oinarrituz. Aukeraturakoei formakuntza jasoko dute euren trebetasun sozioprofesionalak hobetzeko.

info+: Hiruka.eus/erandio

BBKren Altzagako zentroa jubilatuen elkarteak erabiltzea ahalbidetuko du Udalak

Altzagako Jose Luis Goiaga kaleko 22. zenbakian BBK-k duen lokala auzoko jubilatuen elkarteak kudeatuko du laster, Joseba Goikouria Erandioko alkateak baieztatu duenez.

Horretarako, aurreakordio batera heldu ziren pasa den barikuan Udalak eta finantza-erakundea. Aurrezki-kutxak udal erakundearen esku utzi du lokalaren erabilera, eta, trukean, Udalak mantentze- eta jardute-gastuek ar-

duratuko da. Ekimena abian ipini aurretik, talde politikoei eta Altzagako Nagusien Elkarteari aurkeztuko diete akordioaren zirriborroa, eta onartuz gero, hiru hitzarmen sinatuko dituzte, BBKren, Udalaren eta Altzagako jubilatuen elkartearen artean. Goikouria aburuz, Altzagako jubilatuen «laxai» egon daitezke, orain arte erabili izan duten itsasadarreko lokala erabiltzen jarraitu ahal izango baitute. ◀

Unai
Taberna · Jatetxea

Algoriako Etorbidea, 96. 48991 Getxo
94 466 16 61 · tabernaunai@hotmail.com

Taberna Berri

Sarrikobaso 4. ALGORTA · 94 430 64 93

txakoli mota gane Tx.
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34
(Akarlanda parkea) Goleiri-Erandio
94 467 00 07 · www.txakolimotagane.com

LUBERRI
OBRAK ETA ZERBITZUAK

- Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
- Inausketak
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axe ibaiertza 28A behe, 812 Lokala (ERANDIO)
629 41 18 38 · 94 467 17 13
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) 8 ETA 9 EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Leioa



Apirilaren 30a izango da argazkiak bidaltzeko azken eguna.

Itsasadarreera begira ipinita

Leioa itsasadarretik argazki-lehiaketa

antolatu du Udalak, Portu Fundazioaren laguntzagaz.

Portu Fundazioaren laguntzagaz, *Leioa itsasadarretik argazki-lehiaketa* antolatu du Udalak. Izenak dioen legez, sariketarik Ibaizabal ingurua izango du protagonista nagusia; irekia izan arren, leioaztarrei zuzenduta dago gehienbat. Parte hartu gura duenak pauso bi baino ez ditu egin behar: batetik, Leioa inguruan, itsasadarreko argazkia egin beharko du, edo daukan irudien artean bat aukeratu, eta digitalizatu. Horregaz batera, kontakturako datuen fitxategia (izena, posta elektronikoa eta telefonoa) bidali beharko du helbide honetara: leioaitsasadarretik@gmail.com. Apirilaren 30a izango da azken eguna lanak aur-

kezteko azken eguna. Igorritako argazkiak baldintzak betetzen baditu, www.leioaitsasadarretik.info webgunean argitaratuko dute, epaimahaiak balora dezan. Interneteko atari horren bidez emango dituzte ezagutze-za, maiatzean, hiru saridunen izenak; sariak esku-dirutan emango dira: irabazlearentzako 500 euro, bigarrenarentzako 350 euro, eta hirugarrenarentzako 150 euro. Horrez gainera, hainbat ekintza osagarri egongo dira, berbarako: solasaldiak izango dira; historia, ondare eta biodibertsitatearen gainean jardungo dute parte hartzaileek adituakaz. Bestalde, leioaztar denei zuzendutako ekintza ludikoak eta parte-hartzaileak egingo dituzte; itsasadarragaz zerikusia edukiko dute. Udal arduradunek adierazi dutenez, urteko lehen hiruhilekoan izango dira ekintzak, baina oraindino ez dituzte datak zehaztu. ◀

info+: leioaitsasadarretik.info

Hainbat laguntza eskatzeko aukera

Kultur, kirol eta aisialdi arloetako Kohiko diru-laguntzen deialdia zabalik dauka Udalak; interesa duten elkarteek martxoaren 17ra arte edukiko dute eskabidea aurkezteko aukera. Horretarako, udal erregistro orokorrera jo beharko dute. Diru-laguntzen deialdi horren barruan sartzen dira 2016an egingo diren proiektuak, betiere abenduaren 30a baino lehenago amaitu badira. Kultura- eta aisialdi-taldearen artean, 22.642,66 euro banatuko ditu Udalak; kirol elkarteentzat, berriz, 67.231,80 euroko diru-partida

bideratu dute agintari leioaztarrek. Bestalde, oinarrietan aipatzen denez, sortu berriak diren elkartei 300 euroko subentzioa eman diezaike Udalak, inskripzio-gastuetan laguntzeko. «Hurrengo urteetan, martxan jartzen dituzten ekimenen jarraipena egingo da, eta horien arabera emango dira osteko diru-laguntzak», bertoko arduradunek gaineratu dutenez. Deialditik kanpo geratuko dira, beren-beregi, ikastetxeek antolatzen dituzten eskolakako ordutegitik kanpoko jarduerak eta hezkuntza-zentroenak. ◀

Herri-partaidetzaren diagnostikoa egiten dabil gobernu-taldea

Agintari leioaztarren arabera, «urte asko dira udalerrian herritarren iritzia ezagutu eta haien partaidetza sustatzeko ekimenak egiten direla». Oraingoan, partaidetza-prozesu horien diagnostikoa egin gura du Udalak; horretarako, leioaztarren laguntza eskatu du: inkesta labur bat bete beharko dute. Herritarrek martxoaren 15era arte edukiko dute diagnostiko horretan parte hartzeko aukera. Inkesta erantzuteko modu bi daude: bata, udal egoitzetan (udaletxea, Kultur Leioa, kiroldegia eta gaztegunea) egongo den paperezko galdetegia bidez; bestea, Internet bidez, euskaraz edo gaztelaniaz. Horrez gainera, udal talde politikoei eta teknikariei zein herriko elkartei elkarrizketak egiten hasi dira, ikuspegi zabal eta globala edukitzeko. «Existitzen dena ebaluatu, eta existitzen ez dena sortzeko balio izango du osteko azterketak», udal agintarien esanetan. ◀

info+: www.leioa.net



Aritz Tellitu da EH Bilduren zinegotzi berria.

Udalbatzan, Tellitu Fullaondoren ordeaz ipini du EH Bilduk

Leioako EH Bilduk eguazteneko (otsailak 24) osoko bilkuran egin zuen zinegotzi aldaketa: Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxek koalizioko hautetsi eta bozeramaile izateari utzi dio, eta Aritz Tellitu Zabala 22 urteko gazteak hartu du bere eserlekua. Batetik, «arrazoi profesionalengatik uko egin dio Arkaitzek», ezkertiarrek azaldu dutenez. Bestalde, beste hainbat lagunegaz batera, «kale-dinamiken sustapenean sartuko da buru-belarri». Tellitu abokatutzako masterra egiten dabil, eta saskibaloiko entrenatzaile da. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

XURRUT

Pizza Bar - Musika zuzenean

946 77 13 89 - GORLIZ - www.xurrut.com

Irunbat

gaip

C/ Lolo Ander Deuna, 74

Telefono: 946 764 625
Fax: 946 762 582
Web: www.irunbat.net

MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAINTZA BEREZIA

Sopela

Ahal Dugu alderdiak Denok Batera-ri eskatu dio bulegotik bere logoa ken dezan

Pasa den otsailaren 9an, Sopelako Ahal Dugu taldea batu, eta erabaki bi hartu zituen Denok Batera udal hautagaitzaren gainean. Alde batetik, orain aste batzuk DBk Ahal Dugu-ren logotipoa ipini zuen bere bulegoan, eta hura kentzeko eskatu du alderdi moreak, «Ahal Dugu ez baitzen aurkeztu udal hauteskundeetara inolako hautagaitzaren izenpean». Bestetik, «Sopelako Ahal Dugu taldea DBren udal erabaki eta politiketatik aldentu da, uste duelako ez dela Ahal Dugu, ez formetan ezta mamian ere». Pasa den abenduaren 20a arte Sopelako Ahal Dugu-ren idazkari nagusia izandako Jose Angel Alvarezek azaldu duenez, azaroan 134 pertsona zeuden inskribatuta alderdian. Haietatik bostek bakarrik parte hartu zuten batzar hartan. DBn, ordea, «20 lagun baino gara, guztiok Ahal Dugu-koak», dio. ◀

EAJ eta EH Bildu ez dira ados ipini lorezaintza-zerbitzuan

«Zerbitzua martxan dago» jeltzaleen arabera, esleipena atera arte luzatzeko agindua eman baitiote enpresari.



Batzordean, esleipen-plegua onartu eta udalbatzan atzera botatzea leporatu dio EAJk EH Bilduri.

Pasa den urtarrileko udalbatzan, lorezaintza-zerbitzuaren esleipena bozkatu zuten, berriro ere, abenduan atzera bota ostean. EH Bilduren arabera, Udal Gobernuak urrian edo azaroan eroan behar izan zuen, kontratuaren epeagaz arazorik sor ez zedin. Horrela egin ez zenez, eta Sopelako herriari «bat, bi edo hiru hila-betez» lorezaintzaren mantentze-zerbitzua eman ez eta «kaltea» eragingo zaionez, errakuntza eta «erantzukizuna» onar zitzaten eskatu zien udal arduradunei. Era berean, koalizio soberanistak behin-behineko konponbidea emateko, arau-zirikitua bilatzeko eskatu zuen, enpresari eta langileei kalterik ez eragiteko. Gontzal Hermosilla alkate jeltzaleak hartu zuen egindakoaren ardura, baina ukatu zuen Sopela lorezaintza-zerbitzu barik egotea; enpresari jarraitzeko agindu baitiote. ◀

Sekeko gaztetxea itxiko dute gazte-asanblada indartzeko

Gazte Asanblada Sopeloztarrak (GAS) Sekeko gaztetxearen atea ixtea erabaki du, hainbat asanblada eta hausnarketaren ondoren. Kolektiboak zabaldu duenez, errota zaharrak hasieratik behar asko eskatu du. Hasieran, «gogoz berpiztu» zuten, baina urteak aurrera joan ahala, espazio horrek «gehiegizko lan eskerga suposatu du bertan militatzen duten kideentzat, gehiegizko indarra bideratu baita erakina bera mantentze- eta gobernatze-beharretan, bestelako lanketarako energia agortuz». Gainera, GASen iritziz Sekeko «txikiegia» da Sopelako herriarentzat. Horregatik, «gaztetxea tresna bat dela ulertuz», Sekeko albo-

ratu, eta indarrak «lan sozial, kultural eta politikoa egitera» bideratu gura dituzte, «inertziatik askatuz, aisialdia eta herri-mugimendua astintzera», GAS «bizi-bizirik» jarraitzen baitu. Sekeko behin betiko itxi aurretik, gaztetxean diren materialak bueltatuko dituzte. Horregatik, bertan zerbait daukan jende orori harremanetan jartzeko eskatu diote. Erreklamatu ez dena beste gaztetxe edo kolektiboren bati emango diote. Bestalde, martxoaren 12an eta 13an, zapatu eta domeka, bideo bat grabatuko dute Sekekoko historia gordetzeko. Bertaratzeko eskatu diete gaztetxean esku hartzeren bat, txikiena bada ere, izan dutenei. ◀

HIRUKAk jakinarazten du:

El Correo argitaratutakoaren harira, bertan Sopelako alkatearen adierazpenak jaso zituzten (gero berak gezurtatuak), HIRUKA-ren izena eta egitekoa aipatua eta zalantzan jarri izan direnez, HIRUKAK jakinarazten du: argitaratutakoak gezurrak direla. Kontratua indarrean izan du HIRUKA une oro: 2015eko irailtik azarora, eta ordutik urtaril bitartera (hilez hil); Sopelako Udalagaz adostuta, lehiaketa berria deitu bitartean. Udal webgunea beste enpresa batek kontratatuta zuen Udalak. HIRUKA edukiak ekoizteko eta hedatzeko ardura zuen: informazio-educiz

hornituta eta jardunean egon dira bai webgunea, baita youtube kanala ere, urtarilerara arte. Webguneko beste arlo batzuk eguneratzea ez da egon gure esku. HIRUKA ez da lehiaketara aurkeztu, ez dituelako betetzen ezarritako baldintza berrietako batzuk (4 urteko antzinatasuna; 100.000 euroko fakturazioa). Inoren lana eta profesionaltasuna ezbaian ipini aurretik, edo okerrago, salatu baino lehenago, adierazitakoa egiaztatzea eginbeharra da. Baieztatutakoak egia diren frogatu gura izanez gero, berton gaituzue; kontuak zuzen, argi eta zehatz dauzkagulako. info +: www.hiruka.eus



Gramofono ixila

LANDER UNANUE MENDIGUREN
Abarkatxo

Gorputz adierazpenak buruari

Gorputz oro da miresgarria bere berezitasunean. Gorputza, sistema konplexua izanik, aztertu eta lantzeko aukera bakarra duena, norbera da. Hau da, norberak bakarrik azter dezake bere gorputza. Hala ere, gorputz-adierazpenaren azterketa horretan murgiltzea ez da hain sinplea, badirudielako garunaren garraio soil bezala erabiltzen dugula askotan. Diotenez, burua eta gorputzaren arteko lotura oso estua da eta bien arteko oreka mantentzea ezinbestekoa, biak garatu ahal izateko. Jakinik gorputzaren bitartez garuna alda daitekeela eta garunaren bidez gorputza. Nola eragiten dio zure gorputz adierazpenak buruari? Eta buruak gorputzari? ◀



Haur Hezkuntzatik Batxilergora

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus



Gorliz

Ardoa dastatzeko tailerra egingo dute hilaren 26an

Gorliz dastatzen jarraituko dute hilaren 26an, barikuan. Oraingo honetan, ardoa izango da eguneko protagonista, edari hori «behar bezala» dastatzeko tailerra egingo baitute Sertutxena aretoan, 19:30etik aurrera. Horretan parte hartzeko, aldeztu aurretik izena eman beharra dago. ◀



Umeentzako euskarazko ipuin-kontalaria, hilaren 27an

Zapatuak familian igarotzeko egunak izan ohi dira. Hori dela-eta, Gorlizko Udalak ipuin-kontalarien eguna antolatu du hilaren 27rako, zapatua. Egun horretan, Sertutxena aretoak familia osorako kontakizunak hartuko ditu, 18:30etik aurrera. Hala, 4 urtetik gorako neska-mutilek *Ipui-*

nak jo eta musika kontatu izeneko kontakizunean agertzen diren euskarazko istorio eta abenturez gozatu ahal izango dute bertan, gurasoek lagunduta.

Antolatzaileek gogoratu dutenez, ipuin-kontalariaren saioa 18:30ean hasiko da, eta 18:40erako ateak itxi egingo dituzte. ◀

Plentzia

Errefuxiatuak lagunduz

Siriako gerratik ihesi doazenentzako arropa batzen hasi da Izanik elkarteak; garraio-enpresa behar dute bidalketarako.

Plentziako Izanik elkarteak Siriako errefuxiatuei arropa eta zapatak helarazteko bilketa martxan ipini du. Hala ere, elkarteak iragarri duenez, garraio-enpresa bat behar dute ekimen horretan parte hartzeko, eta batutako material guztia gerratik ihesi doazen errefuxiatuen akanpalekuetara eroateko.

Bitartean, Plentziako Udalak frontoiaren zati bat utzi dio elkarteari arropa-batzea aurrera eroan ahal izateko. Era berean, ekimenagaz bat egin gura duen garraio-enpresa aurkitzen duten bitartean, Izanik elkarteak Kutxabanken duen kontu-korrontearen zenbakia (2095 0062 10 9108502633) eskura



Frontoian eman daiteke dohaintzan arropa. GGIA

jarri du gura duenak bere ekarpena egiteko; bildutako material guztia bidaltzeko kostuak ordaindu ahal izateko bideratuko dute diru hori.

Izanik elkartearen lehenengo pausoa hiribilduko auzokideak mobilizatzeko izan da, neguko arropak, zapatak,

lo-zakuak, kanpin-dendak, euritakoak, kapusaiak eta mantak dohaintzan emateko, besteak beste.

Bestalde, ekimen horrez gainera, Izanik elkarteak udaro Bielorrusiatik etorritako neskatilak udalerrian hartzeko egitasmoa ere prestatzen du. ◀

Hozkailu Solidarioak Plentzia hiribildura egin gura du salto

Galdakaon izandako esperientzia arrakastatsuen ostean, Hozkailu Solidarioak oraingoan salto egingo du beste herri batera: Plentziara. Galdakaoko Boluntarioen Elkartek sortutako ekimen hori hainbat lekutan ezarri da. Orokorrean, jabetxeek zein supermerkatuek tonaka jaki bota behar izaten dituzte, horiek mantendu ezin dituztelako. Hori saihesteko, hozkailu bat jartzen dute kalean, edonoren eskura, gura duenak janaria hartu eta eman dezan. Sortzaileen berbetan, Galdakaon hilero 150 kilora arte jaki berreskuratzea lortu dute, eta horren ondorioz, hainbat taldek elkartasun eredu hori kopiatzeari ekin diote. Plentziako Udala ekimen horren sortzaileagaz batu da, ekimenaren nondik norakoen berri izateko. Hala, elkartasun-hozkailua noiz eta non ezarri erabaki baino lehenago, herria sentsibilizatu gura du Udalak. Horretarako, bilera irekia egingo dute apirilaren 8an, Goñi Portalen. ◀

Alfon deportatuarentzako argazkiak batu gura dituzte

Alfon Etxera herri-ekimenak argazki «lehiaketa» ipini du martxan, «Zure begietarako, Alfon» goiburuz. Horren helburua, Plentzia zein inguruko herrietako irudiak Afrikako Sao Tomen deportatuta dagoen Alfon Etxegarairi helaraztea da. Horretarako, edozein pertsonak parte har dezake, argazki eta testu baten bidez. Lanak aurkezteko epea martxoaren 18ra arte zabaldu dute, eta Txeferen liburu-dendan entregatu ahal izango dira.

Antolatzaileek azaldu dutenez, «iniziatiba honen bitartez, gure ingurunearen argazkiz osaturiko zubi bat eraiki nahi dugu. Zubi horrek, txoko bereziak eta Alfonso Etxegarai Atxirikaren (30 urtez Sao Tomen, Afrika, de-



Alfonen 30 urte darozten Afrikar deportatuta.

portatua) oroitzapenak elkartuko ditu. Herri-ekimenak ez du inolako saririk banatuko, «gure helburu bakarra Alfonso argazkiak helaraztea da». Hortaz, ez da inolako epailerik egongo ezta saririk banatuko ere lehiaketa honetan. ◀



«Bizkaitik Egeora» ekimenean, 300 pertsona inguruk parte hartu zuten. Ego itsasoan modu boluntarioan lan egiten duen Itsasoko Salbamendu Elkarte Humanitarioari emango zaio ekimen horregaz lortutako diru guztia, gerratik ihesi doazen errefuxiatuei laguntzen jarrai dezan.

Plentzia

Ahanzturan ez isiltzeko Memoria Astea antolatu dute

Ernaik eta Kandelaria Kultur Elkarteak astebeteko jardunaldiak antolatu dituzte, Danontzat gaztetxearen laguntzagaz, otsailaren 29tik martxoaren 5era arte.



Gudariei eta senideei omenaldia Plentzian izango da. © EUZKADIKO GUDONTZIDIA IRUDITAN LIBURUA

Plentziako Kandelaria Kultur Elkarteak eta Ernai gazte-antolakundeak Memoria Astea antolatu dute hilaren 29tik martxoaren 5era, Danontzat gaztetxearen laguntzagaz. Hala, aste horretan, astelehenetik zapatua, Andres Gangoit Cuesta (Gorliz 1918, Iruca 1942) *Eretza-Mendi* itsasontziko marinel izan zenaren inguruko erakusketa egongo da ikusgai Danontzat gaztetxean, 18:00etatik 20:00etara. Gorliztarra 1937an atxilotu zuten, Bilbotik Cardiffera (Gales) zihoala. Itsasontziko delegatu politikoa zelakoan, heriotza-zigorra kondenatu, eta bere bizitzako azkenengo 6 urteak hainbat espetxetan eman zituen. Andrew Gangoitik, Andresen ilobak, bere osabaren inguruko proiektu bat osatu zuen, «ahantzurari aurre egiten lagunduko gaituen hausnarketa», hain zuzen ere. Hala, proiektu horren erakusketa zazpi alek osatzen dute: hiru, bere osaba Andresen bizitza eta heriotzaren ingurukoak; beste hiru, *Eretza-Mendi* itsasontziari lotutakoak; eta zazpigarrena, gizonaren eta ontziaren bizitzetako kronologia erakusten duena.

Hurrengo egunetan, berriz, erakusketa ikusi ahal izateaz gainera, hainbat ekimen antolatu dituzte plentziarrek. Martxoaren 1ean, martitzena, «herrian faxismoa denon artean gar-

bitzeko» deia egin dute, 18:00etatik aurrera. Eguenean, martxoaren 3an, «Memoria egin, Justizia egin» hitzaldia egongo da, 19:30ean, Danontzat gaztetxean. Barikuan, *Botilen herria* dokumentala proiektatuko dute, 20:00etan, Danontzat gaztetxean bertan ere. Eta, azkenik, martxoaren 5ean, zapatuan, Matxitxakoko itsas batailaren gudariei gorazarre egingo diete, Plentziako portuan, 13:00etan. ◀

Egitaraua

Otsailak 29tik martxoaren 5era

18:00-20:00 Andrew Gangoitiren *Eretza-Mendi* erakusketa, Danontzat gaztetxean.

Martxoak 1, martitzena

18:00 «Faxismoa denon artean garbitzea», herrian zehar.

Martxoak 3, eguna

19:30 «Memoria egin, Justizia egin» hitzaldia, Ahaztuak 1936-1977 elkartearen ekimena, Danontzat gaztetxean.

Martxoak 4, barikua

20:00 *Botilen hilerria* dokumentalaren proiektzioa, Danontzat gaztetxean.

Martxoak 5, zapatua

13:00 Omenaldia, Matxitxakoko itsas batailaren gudariei eta euren senideei, Plentziako portuan.

Urduliz

Beste kontratu bi onartu dituzte trenbidea lurperatzeko

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) kontratu berri bi eskainiko ditu Urdulizko trenbide-pasagunea lurperatzen jarraitzeko, eta lurpean geltoki berria eraikitzen segitzeko. Hala erabaki zuen hilaren 16an BGP-ren Kontseilu Nagusiak. Kontuak horrela, Urdulizko geltokiko seinaleen, altzarien eta bulego teknikoaren proiektua onartu zuten, 528.077,71 euroko aurrekontuagaz hasieran; eta enpresa esleipendunak lau hilabete izango ditu kontratua betetzeko.

Modu berean, obra horren gainegitura-lanen barruan, Urdulizko geltokiko txartelak saltzeko eta balioztatzeko

sistemaren instalazioetarako lehiaketara atera du Partzuergoak, 156.453,05 euroan, egiteko eta jartzeko 5 hilabete epeagaz.

Geltoki berria, 2017 baino lehen

Urdulizko metro-geltokia eta trenbidea lurperatzeko zein metroaren azken trenbide-pasagunea kentzeko lanak aurrera doaz, eta «ustekabekorik sortzen ez bada», ezarritako epean amaituko direla jakinarazi zuen Vicente Reyes Garraioen foru-diputatuak, iragan irailean obrak bisitatu zituenean. Hala, aurreikusitakoaren arabera, geltoki berria urte akabuan zabalduko dute. ◀

Barrika

Magiaren mundura abiatzeko tailerra, hilaren 27an

Magiaren munduan murgiltzea lume askoren ametsa da. Hori dela-eta, Barrikako Udalak magia tailerra antolatu du hilaren 27rako, zapatua. Egun horretan, 5 eta 12 urte arteko neska-mutilek trikimailuetan trebatzeko saioa izango dute, 11:30etik aurrera, liburutegian. Horretan parte hartzeko izena eman beharra dago. ◀



Liburu-foruma egingo dute hilaren azken egunean, liburutegian

A gate Deuna, aratuste eta tostada lehiaketaren ostean, bada garaia otsailari amaiera lasaia emateko. Horrenbestez, Gertuko elkarteak liburu-foruma antolatu du hilaren 29rako, astelehena. Egun horretan, liburutegira bertaraten diren gizon-emakumeek *La*

casa del mirador ciego liburuaren nondik norakoen inguruan berba egiteko aukera izango dute, 18:00etatik aurrera. Herbjørg Wassmo idazle nordikoa-ren lan horrek hainbat sari jaso ditu, eta *Tora* trilogiaren hasierako liburua da. Horretan, Tora neskatilaren istorioa kontatzen du, Bigarren Mundu Gerra garaian, Norvegia Alemaniaren menpe zegoenean. Wassmok beldurraz, erruaz eta lotsaizunaz hausnartzen du eleberrian, besteak beste. ◀



Sexualitateen distirak

SAIOA HERNANDEZ CASTRO
Sexologia eta psikologoa

Grinen zirrarek naute edertzen

Kaixo, poztan nau HIRUKAn idazten hasteak, eta honela sexualitateari gunee bat eskaintzea. Benitoren sentikortasunaz eta hunkikortasunaz baliatu naiz zutabetxo honi izenburua jartzeko. Munduan inposaketak, indarkeria, bidegabekeria nagusitzen diren bitartean, pertsonen arteko komunikazioa eta harremanak «gatazkatsuak» izaten dira. Gurea, garai bortitza izanda ere, maitasunari edo hobeto esanda, desirari bidea ematea proposatzen dizuet. Jolasak, hausnarketak eta ausardia funtsezkoak dira horretarako. Sexualitatea pertsonaren ezaugarri distiratsuen da, ilunpean utziko dugu? Edo jolasteko prest gaude? ◀



Gure esku

ZELAI
NIKOLAS EZKURDIA
Legelaria

Erabakiaren aroan eskutik helduta

Ez dut gustuko ikusten ari naizena. Desoreka sako-
nak daude mundu mailan
gizakiaren biziraupena
eta duintasuna kolokan jartzen
dituenak eta orain arteko eraba-
kiak ekonomia arloko interesei
ematen diete lehentasun osoa
beste interesen gainetik, eko-
nomia balitz mundua mugitzen
duen eta zoriona dakarren in-
dar bakarra. Zein oker gabiltzan!
Hortxe gure begien aurrean mi-
laka eta milaka iheslari Europa-
tik noraezean eta babesik gabe,
giza duintasunaren aldeko itun
eta legedia guztiak mamiz hus-
ten. Hortxe, begi bistan, klima
aldaketaren ondorioak eta eran-
tzun eraginkorrak atzeratzen eta
atzeratzen. Hortxe krisi ekono-
miko latza, hainbat herritar eta
familia etorkizun argirik gabe
uzten dituen eta Estatuen alde-
tik erantzun sozial argirik gabe.
Hortxe, Espainiako ustelkeria
kasuak, eta hala ere, agintean
jarraitzen dute eskandalu horiek
ziprztindutako agintari politi-
koek...

Dena ez da horren negarga-
rria, ordea. Egoera latz horien
aurrean diagnosi partekatu bat
egiteko gaitasuna sortzen ari da
eta ildo horretatik egoera ho-
rren kontrako erantzun sendoen
beharra azaltzen, demokrazia-
ren ideia ardatz hartuta: Europa-
ren demokratizazio beharrezkoa
ikusten da; botere ekonomikoen
kontrola eta muga eskatzen ari
da; herrien nortasuna eta eraba-
kimena ezagutzeko beharra Esta-
tuaren agendan sartu da bete-be-
tean, erabakitzeko eskubidearen
bidetik eta Euskal Herrian elka-
rrekin aritzeko beharraz jabetzen
ari gara.

Erronka handien aurrean
euskal herritarrok nor izaten ja-
rraitu nahi badugu mundu kon-
plexu honetan elkarrekin eraba-
kiz egin behar dugu bidea. Hau
da, ehuntzen, adosten eta eraba-
kitzen ik(h)asiz. ◀

Uribe Kosta

Gidabaimena, euskaraz

Azterketa teorikoa euskaraz prestatu eta gainditzen
dutenentzako diru-laguntzak prestatu dituzte Erandioko
eta Getxoko udalek.



Getxoko Udalak hainbat urte daroatza ekimen horretan. © GETXOKO UDALA

Urtero legez, aurten ere gida-
baimena euskaraz ateratzea
sustatzeko diru-laguntzak
martxan dituzte eskualde-
ko udalerrri bik: Erandion eta Getxon,
hain zuzen ere. Laguntzok 17 eta 23
urte arteko neska-mutilei begirakoak
dira; hala, gidabaimena lortzeko az-
terketa teorikoa euskaraz prestatzea-
gatik eta gainditzeagatik, Erandion
150 euroko eta Getxon 100 euroko la-
guntzak banatuko dituzte. Getxon, ha-
laber, 100 euroko balioa duen erregai-
txartelak zozkatuko dituzte, euskaraz
ikasten duten etorkizuneko gidarien
artean. Horrez gainera, euskarazko
teoria-liburu berriak banatu dituzte,
ekimen horretan parte hartzen duten
autoeskoletan. Diru-laguntzok eska-
tzeko, urte amaierara arte egongo da
aukera. Uribe Kostako Mankomuni-
tate Zerbitzua, oster, eskualdeko au-
toeskolakaz harremanetan ipintzen
dabil ekimena berriro ere abiatzeko. ◀

Bizkaiko udalek 75,5 milioi euro bueltatu behar dituzte

Bizkaiko udalek 75,5 milioi euro
itxuli beharko dizkiote Udalkutxa
Udal Finantzaketarako Foru Funtzari,
diru gutxiago batu da-eta zergetan. Fi-
nantzen Lurralde Kontseiluak urrian
egindako bileran 48 milioi euroko
itzulpena izatea aurreikusi zuten, be-
raz, orain, bueltatu beharreko kopu-
rue handiagoa da. Udalerriek 2016 eki-
taldiaren barruan itxuli beharko dute
dirua, «arrisku partekatuaren eredu-
aren parte dela ulertzen baita», Aldun-
diak azaldu duenez. Horregatik, eta
izandako emaitzak ikusita, Aldundiak
eta udalek uste dute beharrezkoa dela
maiatzean biltzea. Ordurako, udaleta-
ko 2015. urteko likidazioak ezagutuko
dituzte, eta 2016. urtearen lehen lauhi-



Urrian 48 milioi euro izango zirela uste zen.

lekoan izandako zerga-bilketaren ebo-
luzioa ere aztertuko dute. Horrela, al-
dizkako datuak izango dira, eta tes-
tuinguruari egokitutako kudeaketa
egin ahal izango dute. ◀

info+ bizkaia.eus

Enpresa berritzaileak sortzeko, programa bi abiatuko dituzte

Aldundiak dekretu bi onetsi ditu
enpresa berritzaile berrien sorre-
ra sustatzeko. Hala, Enpresa berritzaile-
ak sortzeko programa eta «Bizkaia
Sortzaile» egitasmoaren edizio berria
onartu dituzte, lurraldean aberasta-
suna eta enplegua sortzea bermatzeko
tresna izan daitezkeen.

Aipatutako dekretuak aurreko edi-
zioen aldean dakartzan neurri berriak
barne-ekintzailetzaren sustapenari
dagozkio, «guztiz garrantzitsua bai-
ta enpresen tamaina handitzea, eta
enpresen lehiakortasuna areagotuko
duten negozio unitate berrien sorrera
ahalbidetzea», Aldundiak jakinarazi
duenaren arabera. ◀

info+ bizkaia.eus

Urritik hona jazotako suteetan, 265 hektarea erre dira Bizkaian

Guztira, 265 hektarea kiskali dira
2015eko urritik orain arte jazotako
32 suteen ondorioz, Aldundiak eginda-
ko balantzearen arabera. Abendu aka-
buan gertatutako baso-suteetan erre
ziren lurzoru gehienak, abenduaren
27an Berango, Sopela eta Urdulizen ja-
zotako suteetan, hain zuzen ere. Horren
harira, Aldundiak gogoratu du Ertzain-
tzak oraindino martxan duela ikerke-

ta: «eragin naturalak» baztertu ostean,
«nahita» eragindakoa izan zitekeela
uste dute. «Ertzaintzak hainbat hipote-
si ditu eskuartean», gaineratu dute. Ha-
laber, Aldundiak jakinarazi du lagun-
tza-deialdi bat egingo duela martxoan
eta apirilean baso-suteen prebentzio-
rako jarduerak egiteko; hartzaileak
baso-ugazaba pribatuak, elkarrekin eta
udalak izango dira, besteak beste. ◀

Ospitalerako sarbideak egokitze, sinadura-batzea

Sopela-Urdulizko Saihesbidea, Noiz-
Sko? (SUSAN) elkarte sinadurak
biltzen hasi da *change.org* sare sozia-
laren bitartez. SUSAN elkartearen batu
dira Urdulizko ospitalea zabaldu eta
gero trafikoa handituko delako ardu-
ratuta dauden auzotarrak. Ez dute os-
pitalearen irekiera zalantzan jartzen.
Ospitalerako sarbideak egokitzea gura
dute, ordea. ◀



Uribe Kostako, Bizkaiko beste eskualdeetako eta Gipuzkoako museoen informazioa webgune honetan bila daiteke: Euskalkostaldekodemuseoak.eus

Kostan, altxorraren bila

«**Euskal kostaldeko altxorrak**» programaren IV. ekitaldia abian ipiniko du Euskal Kostaldeko Museoen Sareak. Martxoan hainbat ekimen izango dira Getxon eta Plentzian.

Euskal Kostaldeko Museoen Eguna ospatzeko programa zabala aurkeztu du Euskal Kostaldeko Museoen Sareak. Ekimenak Euskadiko kultur eta natur ondarea nabarmendu eta sustatzea du helburu, baita euskal kostaldean dauden zentroak eta haien kultur eskaintza aurkeztea ere. «Euskal kostaldearen altxorrak» goiburuagaz, modu

denetako eta mota guztietako ikusleei zuzendutako 150 jarduerak baino gehiagok osatutako programa zabala aurkeztu dute Bizkaiko eta Gipuzkoako erakundeek: familientzako tailerrak, umeentzako jokoak, bisita gidatu bereziak, doako sarrerak, dastatzeak, txalupaz txangoak, eta zuzeneko ikuskizunak, eta abar, eta abar. Basquetour-ek bultzatutako ekimena da, Biz-

kaiko eta Gipuzkoako foru aldundien laguntzagaz.

Museoen Eguna, Uribe Kostan

Algortako Kirol Portuko Getxo Aquariumek doako sarrera eskainiko du martxoaren 20an, domeka, aurretik emandako gonbidapen bitartez. Txartel horiek eurei emailaz edo *Facebook* bidez, eta hainbat hedabideri eskatu ahal izango zaizkie. Bisitak 10:30ak eta 20:00ak bitartean egin beharrekoak izango dira. Bestalde, ikastetxeen artean lehiaketa bat prestatuko dute, eta sarituak Getxo Aquariumen doako bisi-

ta gidatua irabaziko du martxoko beste egun batean. Udalerrri berean, baina Areetan, Bizkaiko Zubiak bisita gidatua antolatuko du martxoaren 10erako, 19:30etik aurrera eta ordubeteko iraupenagaz. 20 lagunentzako lekua baino ez dagoenez, aurretik izena eman beharra dago. Hilaren 15ean, ordea, deskontua izango da. 10:00ak eta 19:00ak bitartean, goiko pasarelatik Ibaizabal zeharkatzea prezio erdian utziko dute: 3,50 euro, aurretik inskribatuz gero. Azkenik, Plentzian, hondoratutako itsasontzien erakusketa doan bisitatu ahal izango da hilabete osoan. ◀

Uribe Kostak irabazi du Gazte Sariketa, Sopelan

Eguaztenean, hilak 24, Sopelako Ander Deuna ikastolan jokatu zuten Ipar Uribeko bertsolari gazteen derbia. Bizkaiko Bertsolari Gazteen BBK Sariketan, Uribe Kostako taldeak aurre egin zion Txorierrri eta Mungialdeko neska-mutilek osatutako Uribe Butroeko multzoari. Irabazlea etxeko taldea izan zen, Uribe Kosta, 415 puntugaz, guztira; Uribe Butroeko taldeak 397,5 puntu lortu zituen. 18 urtera artekoetan, Uribe Kostaren ordezkari zat abestu zuten Irene Ezkurra Erisek, Aritz Landeta Terceñok eta Unai Mendiburu Valorrek. 24 urtera artekoetan, ordea, Inazio Vidal Gurrutxaga, Paule Loizaga Legarra eta Peio Arondo Ba-



randiaran izan ziren gure eskualdeko ordezkariak. Bejondeizuela!

Kanporaketa irabazita, hurrengo fasea pasatuko da ALBEko armada, eta martxoaren 8an Zallan jokatu den finalaurrekoan parte hartuko du. Uribe Butroeko taldean honakoek abestu dute: Ainhoa Gorostiaga, Iker Larizgoitia, Leire Amenabar, Jon Larrabide, Peru Berasategi eta Malen Amenabar. ◀

Pop Rock lehiaketarako izen-ematea, zabalik

Aterpe Leioa Gazteguneak aurkeztu ditu daborduko XVI. Pop Rock Lehiaketaren oinarriak. Parte hartu gura duten musika-taldeek apirilaren 8ra arteko epea izango dute, gutun-azal batean eta posta ziurtatu bidez, gutxienez bost abesti dituen CDa helarazteko. Parte-hartzaileek izena eman beharko dute modalitate bietako batean: pop-rock ala metal. Sariketaren lehenengo fasean, hau da, maiatzaren 5erako, epaimahaiak kategoria bakoitzeko bandarik onenak aukeratu dituzte, jasotako disko denen artean, eta aukeratuek, musika-talderik onenek San Juan jaietan joko dute, bigarren fase horretan erabakiko da irabazlea.

Lehiaketaren oinarrietan agertzen den legez, antolatzaileek erabakiko dute kontzertu horien datak eta ordutegiak. Hala, metal zein pop-rock sailatuko irabazleek 1.200 euroko sari bana jasoko dute. Horrez gainera, euskarazko abestirik onena ere sarituko dute, 600 eurogaz. Aurreko edizioetan bezala, gura duten talde denek sariketan parte hartzeko aukera edukiko dute, disko bat baino gehiago kaleratu eta aurreko edizioetan sari nagusiren bat irabazi duten izan ezik. Betiere, gutxienez, taldekide bi 14 eta 35 urte bitartekoak badira. Adin txikikoek gurasoen edo tutoreen baimena aurkeztu beharko dute. ◀

info+: 944 055 850 / gazte@leioa.net



SOPELA

© ELHUYAR FUNDAZIOA

Txotx egiteko aukera emango dute Kurtzion

Bariku honetan, otsailak 26, *Sagar-doa bidegile* dokumentala proiektatuko dute, 20:00etan, Kurtzio kultur etxean; sarrera, doan. Emanaldia euskaraz izango da, gaztelaniazko azpitituluakaz. Horren ostean, ber-baldia egongo da; baita kupeletako sagardoa eta pintxoak dastatzeko aukera ere, bertan jaritako karpan. Kurtzioko arduradunek zehaztu du-

tenez, Gipuzkoatik ekarriko dute sagarrez egindako edari preziatua. Elhuyarrek eta Pixelek elkarla-nean egindako lehenengo doku-mentala Donostiako Zinemaldian estreinatu zuten, iaz. Sagardoaren inguruko kultur, gastronomia, his-toria eta zientzia-bidaia da; sagardo-tegietara joateko tradizioetik, euskal sustraietaraino doana. Izan ere, sa-

gardoak garrantzi handia eduki du euskal gizartean. Berbarako, gaur egun ezagutzen dugun baserriaren egitura, sagardotik ei dator, adituek hala diote. Bestalde, jakinarazi dute-nez, nabarmentzeko moduko erreali-tate bat da, emakume ugari dagoela sagardogintzari lotuta; hasi sagardo-tegietako arduradunetatik, eta sagar-dotegietako bezeroetaraino. ◀

2016/02/25 - 17:00-19:00	Erle hegalarien tailerra Kultur etxea Gortiz 5 eta 12 urte arteko neska-mutilentzat. Doan.
2016/02/25 - 19:30	Las hipotecas y los deshaucios berbaldia Algortako kultur etxea Getxo Mugabarik elkarreak antolatuta. Olga Macia abokatuagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.
2016/02/25 - 20:00	Landslide rock-taldea Kandlejas taberna (Itzubaltzeta) Getxo Getxon Zuzenean ekimenaren barruan. Doan.
2016/02/25 - 20:30	Zerura eroria antzezlan Kultur Leioako entzungela Leioa Kultur Maratila zikloaren barruan. Anodino Teatroa taldearen obraren estreinaldia. Euskaraz. Sarrera: 8 euro.
2016/02/26 - 17:30-19:00	Ludoteka Liburutegia Barrika 3 eta 12 urte arteko neska-mutilentzat. Doan.
2016/02/26 - 19:00	Entzun, entzun ipuin-saioa Erandiogoikoko gizarte-etxea Erandio Iñaki Carretero ipuin-kontalariagaz. 4 eta 8 urte arteko umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.
2016/02/26 - 19:00	Pentziako Kantagunea Baseliza Plentzia Hasteko. entsegua egingo dute baselizan. 20:30etik aurrera, berriz, kantu-jira egingo dute Alde Zaharrean.
2016/02/26 - 19:30	Aparkatzeko arazoak salatzeko manifestazioa Josu Murueta plaza (Astrabudua) Erandio Hainbat auzokidek deituta.
2016/02/26 - 20:00	Umorezko bakarrizketak Astrabuduko kultur etxea Erandio Encomediados zirkuituaren barruan. Xabier Deltell eta Julio a Secas umoristakaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.
2016/02/26 - 20:15	Ondarreta abesbatzaren kontzertu solidarioa

2016/02/27 - 11:30	Magia-tailerra Liburutegia Barrika 5 eta 12 urte arteko neska-mutilentzat. Doan. Izena aurretik eman beharra dago.
2016/02/27 - 18:00	Alvin y las ardillas: fiesta sobre ruedas filma Kultur etxea Urduliz Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.
2016/02/27 - 19:00	Tributo a Sabina kontzertua Berango Antzokia Berango Joaquin Sabina abeslariaren kanta ezagunak eskainiko ditu Los Otros taldeak. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.
2016/02/27 - 20:00	El experimento antzezlan Areetako musika-eskola Getxo Primital Bros taldeak antzeztuta. Gaztelaniaz. Sarrera: 10 euro.
2016/02/27 - 20:30	Dantza gurea dantza- eta musika-ikusbizuna Kultur Leioako anbigu Leioa Kultur Maratila zikloaren barruan. Idurre Azkue dantzariagaz eta Joseba Irazoki musikagileagaz. Sarrera: 6 euro.
2016/02/27 - 21:00	Perdida filma Areetako musika-eskola Getxo Cinema Paradiso zikloaren barruan. 16 urtetik gorakoentzat. Ingelese, gaztelaniazko azpitituluakaz. Sarrera: 2,90 euro.
2016/02/27 - 22:00	Joseba B. Lenoir Gangen musika-emanaldia Kultur Leioako entzungela Leioa Kultur Maratilaren barruan. Sarrera: 8 euro.
2016/02/28 - 18:00	Paddington filma Berango Antzokia Berango Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.
2016/02/28 - 19:00	Heroiak antzezlan Kultur Leioako entzungela Leioa Kultur Maratila zikloaren barruan. Txalo taldeagaz. Euskaraz. Sarrera: 10 euro.
2016/02/29 - 13:00	

Santiagoak prestatzen jarraituko dute

Urtarrilaren 21ean hasi ziren aurtengo jaiak prestatzeko herri-batzarrak; eguen honetan, otsailak 25, beste biler bat egingo dute. Gura duten gorliztar denek parte hartu ahal izango dute deialdian; 19:00etan, kultur etxean. ◀

Itsaslurreko bide berdea, bizikletaz

Hainbat berbalagunek sortutako bizikleta-taldeak Itsaslurreko bide berdea (Muskiz) zeharkatzeko hitzordua ipini du zapatu honetan, otsailak 27. Goizeko 09:00etan abiatuko dira, Algortatik. ◀

info+: 652 73 54 45 / 685 732 963

BilbaoMusikaren ahotsak, entzungai

BilbaoMusika ahots-taldeko kideak Maria Ibarretxe artistaren eskuetan jarri dira, azken urteotan egin dituzten pop-kantuen moldaketak oholtzara eroa- teko. Emanaldia 20:00etan izango da, Goñi Portalen; sarrera, doan. ◀

Kongon egiten dabiltzan egitasmoetarako batuko dute dirua. Sarrera, doan.

2016/02/26 - 20:30

Malmö film eszenikoa

Kultur Leioako entzungela | Leioa

Kultur Maratila zikloaren barruan. Khea Ziater taldeagaz. Euskaraz. Sarrera: 8 euro.

2016/02/26 - 22:00

Gau beranduan musika- eta literatura- emanaldia

Kultur Leioako erakusketa-gela | Leioa

Kultur Maratila zikloaren barruan. Harkaitz Cano, Petti eta Joxan Goikoetxeagaz. Euskaraz. Sarrera: 6 euro.

Liburutegia | Barrika

Gertuko Auzokide Elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/03/01 - 20:00

El club filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa

Perseo Zineforumaren barruan. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2016/03/02 - 19:30

74 dias recorriendo el Himalaya dokumentalaren proiektzioa

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Munarrikolanda Mendi Taldeak antolatuta. Inigo Iruretagoiena mendizaleagaz. Gaztelaniaz. Doan.

Ipuinak jo eta musika kontatuko ditu zapatu honetan Badut taldeak

Zapatu honetan, otsailak 27, *Ipuinak jo eta musikak kontatu* izenburuko ipuin-kontalari saioa eskainiko du Badut taldeak; horretarako, gitarra elektrikoa erabiliko dute. Emanaldia 18:30ean izango da Sertutxenan; sarrera, doan. Bertoko arduradunek sasoiz joateko eskatu dute; izan ere, atea 18:40ean itxiko dute. 4 eta 10 urte arteko neska-mutilentzako saioa da. ◀



SOPELA

Zine-emanaldia eta berbaldia, Itzartu elkarteak antolatuta

Eguen honetan, otsailak 25, *Una canción para Marion* genero-ikuspegiko filma egongo da ikusgai, 18:00etatik aurrera, Kurtzio kultur etxean, gaztelaniaz. Horrez gainera, martxoaren 3an, *El amor como coartada en la violencia contra las mujeres* berbaldia eskainiko du Alicia Garciak, 18:00etan, Itzartu taldearen egoitzan. ◀



Santiagoak prestatzen jarraituko dute

Urtarrilaren 21ean hasi ziren aurtengo jaiak prestatzeko herri-batzarrak; eguen honetan, otsailak 25, beste biler bat egingo dute. Gura duten gorliztar denek parte hartu ahal izango dute deialdian; 19:00etan, kultur etxean. ◀

Itsaslurreko bide berdea, bizikletaz

Hainbat berbalagunek sortutako bizikleta-taldeak Itsaslurreko bide berdea (Muskiz) zeharkatzeko hitzordua ipini du zapatu honetan, otsailak 27. Goizeko 09:00etan abiatuko dira, Algortatik. ◀

info+: 652 73 54 45 / 685 732 963

BilbaoMusikaren ahotsak, entzungai

BilbaoMusika ahots-taldeko kideak Maria Ibarretxe artistaren eskuetan jarri dira, azken urteotan egin dituzten pop-kantuen moldaketak oholtzara eroa- teko. Emanaldia 20:00etan izango da, Goñi Portalen; sarrera, doan. ◀

Kongon egiten dabiltzan egitasmoetarako batuko dute dirua. Sarrera, doan.

2016/02/26 - 20:30

Malmö film eszenikoa

Kultur Leioako entzungela | Leioa

Kultur Maratila zikloaren barruan. Khea Ziater taldeagaz. Euskaraz. Sarrera: 8 euro.

2016/02/26 - 22:00

Gau beranduan musika- eta literatura- emanaldia

Kultur Leioako erakusketa-gela | Leioa

Kultur Maratila zikloaren barruan. Harkaitz Cano, Petti eta Joxan Goikoetxeagaz. Euskaraz. Sarrera: 6 euro.

Txan fantasma antzezlan, Areetan

Karmentxu umezurtza da, eta izekogaz bizi da. Neba-arrebarik ez daukanez, denbora asko ematen du bakarrik. Halako batean, Txan agertu, eta erabat aldatuko zaio Karmentxuri bizitza. Bakardadea, maitasun-eza, ametsezko lagunak eta ume berezien integrazioa jorratzen dituzte saioan. ◀

Noiz: Otsailak 28, domeka.
Ordua: 18:00
Non: Andres Isasi musika-eskola.
Sarrera: 5 euro.



© PANTZART ANTZERKIA

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN IV. LEHIAKETAREN
ERAKUSKETA

argihizkiak.com

argihizkiak Lemoizen

Astegunetan
16:30-20:00

egizul

Otsailaren 28ra arte

Armintzako kultur etxean





Asiako musika-tresnak ezagutzeko aukera egongo da. HODEI TORRES

Egitaraua

Otsailak 26, barikua

18:30 «Los intercambios culturales y musicales entre Oriente y Occidente», Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Sarrera 3 euro.

Martxoak 4, barikua

18:30 «Los instrumentos musicales del mundo arabe, Turquía e Iran», Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Sarrera 3 euro.

Martxoak 11, barikua

18:30 «Los instrumentos musicales de la India y culturas de Asia Central», Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Sarrera 3 euro.

Martxoak 18, barikua

18:30 «Los instrumentos musicales de China, Japon y Sureste Asiático», Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Sarrera 3 euro.

Munduko musikaz berbetan

Ekialdeko eta Mendebaldeko instrumentuen inguruan berba egingo dute Andres Isasi musika-eskolan, egunotan.

Otsailaren 26tik martxoaren 18ra bitartean, «Instrumentos musicales de Oriente y Occidente» izeneko zikloa antolatu dute Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Guztira, lau solasaldi

izango dira, Jose Maria Bretos Linaza algortarrak gidatuta. Akustika Musika-kaleko eta Organologiako irakasle da Bretos Linaza, Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian. Andres Isasiko hitzaldi-ziklo horren

helburu nagusia da entzuleari Asiako musika-tresnak hurbiltzea, batzuk Europakoak bezain «antzinakoak eta sofistikatuak» baitira, Iran, India, Txina eta Japoniakoak barbarako, adierazi dutenez. «Aldi berean, agerian utzi nahi ditugu bi kontinenteen arteko kultur harreman anitzak, bereziki harreman musikalak. Gaur egungo mundu globalizatu honetan, inoiz

baino interesgarriagoa da Ekialdearen eta Mendebaldearen artean orain dagoen, eta beti egon den, kultur zubia argitzea», azaldu du Bretos musika-irakasleak.

Ziklo horretako berbaldiak bari-kuetan izango dira (otsailaren 26a, eta martxoaren 4, 11 eta 18a) arrastiko 18:30ean, eta sarreraren prezioa 3 eurokoa izango da, saio bakoitzeko. ◀



Maiatzaren 19tik 22ra bitartean izango da kale-artisten jaialdia.

Leioako Umore Azokak 51 talde hautatu ditu aurtengo ediziorako

Umore Azokak inoiz baino eskaera gehiago jaso ditu maiatzaren 19tik 22ra bitartean izango den 17. ediziorako: 424, guztira. Proposamen guztiak aztertu ondoren, 51 konpainia aukeratu ditu Leioako kale-artisten azokako zuzendariak; Euskal Herrikoak 20 dira; Estatukoak, 19, eta nazioartekoak, 12. «Euskal taldeek Leioako plazaren alde apustu

egiten jarraitzen dute; antzerki, dantza, eta zirku-ikuskizun berrienak aurkeztuko dituzte», adierazi dute Umore Azokatik. Asko erabateko estreinaldiak izango direla iragarri dute.

Pasa den urteko edizioa arrakastatsua izan zen: 28.000 pertsonatik gora batu zituen jaialdiak, lau egunez 50 taldek eskainitako 170 emanaldietan. ◀

info+: umoreazoka.org

Genero-ikuspegitik aztertzeke, lau film proiektatuko dituzte Gorlizko Sertutxenan

Uribe Kostako Emakumeak Ahal-duntzeko Eskolak zinema-zikloa antolatu du datozen egunetarako. Eki-men horregaz, antolatzaileek hainbat pelikula aztertu gura dituzte genero-ikuspegitik, Gorlizko Sertutxena aretoan. Aukeratutako lehenengo filma 50 *sombras de Grey* izango da, martxoaren 3an, eguna. Bigarrena, *Amelia* izenekoa proiektatuko dute, martxoaren 10ean, eguna; film horretan, emakume-pilotu baten istorioa kontatzen dute. Hurrengo barikuan, martxoaren 18an, *Hysteria* filma aztertuko dute, lehenengo kontsoladore elektrikoaren asmakuntzaren ingurukoa; eta, azkenik, apirilaren 7an, eguna, *Pride* filma analizatuko dute, LGBT mugimenduari ingurukoa. Filmak proiektatzeaz gainera, mahai-inguruak egingo dituzte, genero-ikuspegitik pelikulak aztertzeke. Hala, saio guztiak 18:30ean hasiko dira, eta aurreikusitako 21:00etara arte iraungo dute saioek. ◀

Entzun entzun ipuina kontatuko dute, hilaren 26an, Erandiogikoko Gizarte Etxean

Otsailagaz batera, Erandioko Liburutegiak hilez hileko ipuin-kontalarien saioei ekin zion berriro. Eguntan Altzagan eta Astrabuduan jardun ostean, Erandiogoikoaren ordua heldu da oraingoan, hilaren 26an, hain zuzen ere. Bariku honetan, arrastiko 19:30ean hasiko da neska-mutilentzako Iñaki Carreteroren ipuin-kontaketa. *Entzun entzun* izeneko euskarazko emanaldia aurkeztuko du ipuin-kontalariak, Erandiogikoko Gizarte Etxean; saioa 4 eta 8 urte arteko umeei zuzenduta egongo da.

Hil honetan eman zioten hasiera ipuin-kontalarien saioei, eta berrikuntza bigaz hasi zuten urtea: ingelesezko ipuinak, eta txiki-txikienezko saioak, 1 eta 3 urte bitartekoentzat, alegia. Arduradunek azaldu dutenez, ipuin-kontalariak txandaka joango dira Altzagako eta Astrabuduko liburutegietara eta Erandiogikoko Gizarte Etxera. ◀

«Genero-identitatea askatasunez erabakitzen utzi behar zaie umeei»

Amelia Barquin Lopez

gasteiztarra filosofian doktorea da, eta irakaslea, Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Sendi Getxoko familietan eus-kara sustatzeko proiektuko kideek gonbidatuta, joan den martitzenean, «Generoa eta hezkuntza» izenburuko berbaldia eskaini zuen Amelia Barquin Lopezek, Algortako Zabala ikastetxean. Aita-amei eta hezitzaileei begirako ekimena izan zen.

Zer da generoa? Zeinek eraikitzen du?

Feminismoak ekarri zuen oso emankorra izan den bereizketa hori; sexu-genero sistema batean bizi garela diote. Ezaugarri biologikoekin lotzen da sexua. Kontuak horrela, jaiotzen garenean medikuak esaten du, gure gorputzaren ezaugarriak ikusita, arrak edo emeak garen; nahiz eta batzuetan horren argi ez dagoen. Generoa da sexu horrekin lotuta dauden funtzioak eta ezaugarriak; ez dira biologikoak, baizik eta gizarteak aspalditik eraiki duen zerbait. Horren arabera, mutilak indartsuak izango dira, eta bizitza publikoa egokituko zaie; nesken lana, ordea, pribatuagoa izango da.

Neskak eta mutilak berdin hezten ditugu gaur egun familian?

Gurasook eta familiok kontzientzia gutxi daukagu gai horren inguruan. Esaterako, ohikoa izaten da ondokoa entzutea aita-amen ahoetan: «nik berdin tratatzen ditut, ez dut ulertzen alaba eta semea zelan atera zaizkidan horren



Besteak beste, komunikabideek laguntzen dute generoaren gainerako mezu okerrak zabaltzen.

ezberdinak. Mutila futbolzalea da, eta neska, oso pinpirina, baina nik berdin tratatzen ditut».

Batzuetan, ez gara gai distantzia apurtxo bat hartu eta ikusteko jaio diren momentutik zein desberdin tratatu ditugun. Oraindik neska gutxi ateratzen da ospitaletik jaio berriak direla, belarrietako zulorik gabe; emakumeei jartzen diegun lehenengo marka da, inor ez dadin nahastu. Erosten dizkiegun arropak, gelaren dekorazioa... beste adibide batzuk dira. Horretaz gain, gizarteak ekoizten dituen produktu gehienek transmititzen dute mezu hori: bi genero ezberdin daudela, eta zakila daukanari bat, eta alua daukanari beste bat dagokiola, alegia.

Zelan jokatzen dugu eskolan?

Eskolari egokitu zaio hezkidetzaren enkargua. Nire ustez, aurrerapau-

so batzuk eman dira: neska eta mutilak elkarrekin daude geletan, hainbat jarduera egiten dituzte batera. Bai-

“Gure seme-alabei gainerako bizilagunak errespetatzen erakutsi behar diegu”

na badaude erronka batzuk oraindik. Adibidez, esparruen banaketak oso binarista izaten jarraitzen du: patioak futbol-zelaiak izaten dira batzuetan; mutilek erabiltzen dute zati handiena.

Zeintzuk dira gure zalantzak, zailtasunak eta erronkak?

Batez ere, gure umeak bideetatik ateratzen direnean, kezkatzen gara gu-

rasook; espero ez diren gauzak egiten dituztenean: «ni prest nago dena errespetatzeko, baina semeak esaten badit gonarekin joan nahi duela eskolara...». Kezka sortzen da orduan; batetik, aita edo ama horrek binarismo horretatik ateratzea gaizki ikusten duelako; eta beste batzuetan, beldur garelako bere jokabidearen aurrean zelan erantzungo duten inguruko pertsonak.

Zelako harrera izatea espero duzue?

Lehenik eta behin konturatu beharko ginateke zelako genero-presioa egiten ari garen gure seme-alabengan, ilobengan, ikasleengan... Eskolan zein etxean, askatasunerako zirikituak behar dituzte umeek, generoari dagokionez, euren buruak eraiki ahal izateko. Bestalde, hezi behar ditugu haurrak besteak errespetatzen. ◀

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- Pertsona Juridikoak: 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- Norbanakoak: 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- Pertsona Juridikoak: 200 € + Urteko kuota: 33 €
- Norbanakoak: 50 € + Urteko kuota: 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

☐ Bazkide Erabiltzailea

☐ Bazkide Laguntzailea

Hiruka laguna

☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____ €

Izena _____ NA _____

Abizenak _____

Helbidea _____

Posta kodea _____ Herria _____

Herrialdea _____ Telefonoa _____

E-posta _____

Kontu korrante zenbakia _____

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fixategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzailearen harremanetan jaritzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikazioa helarazteko. Erabiltzaileak datuak erabiltzearen aurretik jakinarazten diren erabakia hartu behar du. Erabiltzaileak datuak erabiltzearen aurretik jakinarazten diren erabakia hartu behar du. Erabiltzaileak datuak erabiltzearen aurretik jakinarazten diren erabakia hartu behar du. Erabiltzaileak datuak erabiltzearen aurretik jakinarazten diren erabakia hartu behar du.

«Euskarazko arte eszenikoen munduan, irla txikia sortu dugu Leioan»

Artedrama arte eszenikoen plataformak

Kultur Leioan dauka egoitza 2012tik. Ander Lipusek eta Xabino Alkorta sortu zuten 2007ko udan; gero batu zitzaizkien lasone Parada eta Irantzu Azpeitia. Euskarazko sorkuntza sustatzea da euren helburuetako bat. Ildo horretan, otsailaren 25etik 28ra Kultur Maratila jaialdiaren bosgarren edizioa egingo dute Kultur Leioan bertan.



KEPA UGARTE MARTIARENA



Zelan sortu zen Artedrama?

Xabino Alkorta: Artedrama 2007ko udaran sortu zen, krisiarekin bat.

Ander Lipus: Kar, kar. Egia da. Gure aldetik, krisia eduki genuen, eta mundu osoan krisialdia egon zen.

Xabino eta biok elkarrekin lanean arituak ginen Antzerkiola Imaginarioan, baina horrek ez zuen gehiagorako ematen; ez zen bideragarria Antzerkiolaren filosofiarekin jarraitzea, aktorez eta ametsez beteriko konpainia izan arren. Ematen zuen bide artistikoa nahiko argi geneukala. Hala ere, bazirudien ez geniola behar bezalako garrantzia ematen alde administratiboari eta produkzioari. Estruktura bat eraikitzea beharrezkoa zen.

Plataforma horrek sostengatuko zituen proiektu artistiko ezberdinak, ez bakarrik sorkuntza, baita formakuntza edo koprodukzioak ere. Ez zen antzerki-talde soil bat; arte eszenikoetara zuzendutako plataforma sortu nahi genuen.

Sortu bezain laster hasi zineten bidea zabaltzen.

A.L.: Bidea gehiago zabaltzeko nahi genuen euskarazko arte eszenikoetan. Gauzak horrela, oso argi ikusi genuen Ipar Euskal Herriko eragileekin eta taldeekin elkartrukean aritzeko beharra.

X.B.: Formulazioa guztiz berria zen. Batetik, euskaraz egiteko hautuak erabat markatu du Artedrama. Bestalde, euskarriak izatearen kontzeptu horrek eraman gaitu zubiak eraikitzen, askotan inongo estruktura zehatzik gabe, pentsatzen genuelako askoz

naturalagoa eta eraginkorragoa izango zela. Esaterako, Ipar Euskal Herriarekin zubi bat zabaltzen genuenean, horren atzean ez genuen egiten estruktura edo elkarte bat; proiektua eta ekintza baizik. Oso pixkana hasi ginen pausoak ematen; baina txikiak izan arren, sendoak ziren pauso horiek.

Artedramaren eta Ipar Euskal Herriaren arteko harremana oparoa izan da.

A.L.: Ipar Euskal Herria ezagutzeko aukera izan dugu; beti hartzen dugu figura sinboliko bat bezala, baina badauzka bere berezitasunak. Alde batetik,

“Oso pixkanaka hasi ginen pausoak ematen; baina txikiak izan arren, sendoak ziren ematen genituen pauso guztiak”

probintziak hartzen badugu, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoaren artean ezberdintasunak daude: talde eta bizipen ezberdinez ari gara. Ezagutzen dugun Ipar Euskal Herri folkloriko horretaz gain, urteen poderioz bertako jendearekin harremanetan jartzea lortu dugu; hori izan da garrantzitsua guretzat. Bide horretan, oso proiektu ezberdinak egin ditugu:

Ostibarreko antzerki-taldeak batu eta Piarres Larzabal (Azkaine, 1915 - Ziburu, 1988) *Ibaiñeta* bat egin genuen; *Hazparneko anderea* Lapurdiko Eguzkilore taldearekin antzeztu genuen, bertoko jende ezberdinarekin bilduz; Zuberoan Mixel Etxekopar (Gotaine-Irabarne, 1963) eta Xiru jaialdiarekin elkarlanean aritu gara... Errealitate ezberdinak ezagutu ditugu eta, horren barruan, oso garrantzitsua izan da, besteak beste, Le Petit Theatre de Pain taldeko Fuchs anaiak ezagutu eta eurekin koprodukzioak egin izana. Eurengandik pilo bat ikasi dugu; hasten joan den gauza bat da, baina guk modu naturalean sortutako bideetatik. Pertsona arruntak, bertoko laborariak... ere ezagutu izan ditugu; plazera sentitu dute eurek gu antzezten ikustean, eta guk eurekin aritzean.

Zer emaitza eduki zuen 2007an Aulestiko Udalagaz izenpetutako hitzarmenak?

A.L.: Gu zerotik hasi ginen. Horrek esan nahi du ez geneukala lokalik, ezta dirurik ere; ez genuela ezer ere. Hala, hasi ginen begiratzeko Euskal Herri osoan, non topa genezakeen etxe bat; gure proiektuak bideratzeko egoitza bat behar genuen. Kasualitatez, ni Markinakoa izanda, ondoko herrian aurkitu nituen lagun ziezaguketen elkarte eta hainbat lagun, alkattea buru; antzerkiak zentzua zuen Aulestiko pertsona horientzat.

Besteak beste, formakuntzarako espazioa behar genuen; ideia horretatik sortu zen ArteDrama Euskal Laborategia (ADEL). Baina ez hori bakarrik. Hamar



Kultur Maratila

Ez dira hain beltzak igarkizunak.
Ez dira itzalak hain luzeak.
Ez da ilunegia esperantza.
Zabaldu maratila, ireki leihoa:
Lanean ari dira etengabe sormenaren
laborategi eta tailerrak.
Zabal-zabalik euskal artearen lantegiak.
Joka mailuak tinko.

Jon Gerediaga

Egitaraua

Otsailak 25, eguena

20:30 *Zerura eroria* antzezlanaren estreinaldia (Anodino Teatroa). Kultur Leioan.
Sarrera: 8 euro.

Otsailak 26, barikua

20:30 *Malmö* film eszenikoa (Khea Ziater), Kultur Leioan.
Sarrera: 8 euro.

22:00 *Gau Beranduan* musika- eta literatura-emanaldia (Harkaitz Cano, Petti eta Joxan Goikoetxea), Kultur Leioan.
Sarrera: 6 euro.

Otsailak 27, zapatua

20:30 *Dantza gurea* dantza- eta musika-ikuskitzuna (Idurre Azkue dantzaria eta Joseba Irazoki musikagilea), Kultur Leioan. Sarrera: 6 euro.

22:00 Joseba B. Lenoir Gangen kontzertua. Kultur Leioan.
Sarrera: 8 euro.

Otsailak 28, domeka

19:00 *Heroiak* antzezlan (Txalo Produksioak), Kultur Leioan.
Sarrera: 10 euro.

info+: www.artedrama.com

urte dira jada bertoko ikastetxean antzerki-eskolak ematen dizkiedala haurrei; lokala ere badaukat. Bestalde, herritarrekin egin izan ditut tailerrak. Aulesti irla bat da euskal antzerkigintzan; antzerkia bertan egiten delako ezagutzen du ofizioko jende askok.

Hala ere, Aulestin gauzatzen dugun egitasmorik garrantzitsuena da Pazko Astean astebezez egiten dugun formakuntza ikastaroa, euskaraz; ADEL topaketetan, Euskal Herriko ikasle eta irakasle guztiek parte har dezakete. Horrekin batera, herriari zein eskualdeari begira, arte eszenikoen jaialdi aparta egiten dugu; nabarmentzekoa da gaztetxeko lagunak, eta, oro har, herritar guztiak zelan parte hartzen duten. Aurten, 11. edizioa beteko du ADELek, martxoaren 28tik apirilaren 2ra bitartean. Izena emateko aukera dago.

X.B.: Hor ere txiki-txikian hasi ginen; oso gutxika. Aulestin, erraztasun handiak ematen zizkiguten agintariak topatu genituen; eskaera gehienei baiezko batekin erantzuten zieten. Horrek guztiak ematen du aukera bat proiektuak garatzeko, ezagutzen duzulako herritarren jarrera egitasmo horrekiko. Herritarren konplizitate eta inplikaziorik gabe ez zen posible izango 11 urte bete dituen elkarlanari eustea.

Beranduago, 2012an, heldu zen Kultur Leioagaz izenpetutako hitzarmena. Zein emaitza ekarri du?

X.B.: Ipar Euskal Herriko antzerki-talde amateurrekin, profesionalekin eta hango estruktura publikoekin zubiak eraikiz, ikasi eta ikusi genuen formula ho-

riek egonkorrak direla; antzerki-talde batek antzoki batean izan behar du egoitza. Hori dela-eta, bide hori garatzen egon ginen Artedramaren hasierako urteetan; 2012an lortu genuen hitzarmen bat sinatzea Kultur Leioarekin. Erakunde leioaztarrak ateak zabaldutik zizkigun, eta Artedramak kanpamendu nagusia kokuatu zuen bertan.

Hitzarmen horretatik hainbat proiektu bideratu ditugu elkarrekin; baina, zalantzarik gabe, elkarlanean gauzatu dugun ekintza nagusia Kultur Maratila da. Otsailaren 25etik 28ra izango da aurten; euskarazko arte eszenikoei bideratutako lau egun.

“ Ipar Euskal Herrian ondo baino hobeto dakite: antzerki-talde batek antzoki batean eduki behar du bere egoitza ”

Antzerki-taldeentzat ez da erraza aterpea aurkitzea, ezta?

A.L.: Kultur Leioan sartu ginenean, argi geneukan nondik gentozen, eta zer bultzatu nahi genuen; hain berri hori ekarri nahi genuen kultur areto leioaztarrera. Toki askotan egon ginen begiratzen, eta, momentu horretan, Kultur Leioa iruditu zitzaigun

egokiena; batez ere baiezkoa jaso genuelako. Ez da erraza bere azpiegiturak eskaintzen dizkizun antzoki bat aurkitzea! Horrez gainera, gure ustez, hala beharko luke izan toki guztietan. Ezin da ulertu futbol-zelai bat egotea, eta bertako taldeak futboleant jokatu ezin izatea bertan. Filosofia hori aldatu beharra dago; Ipar Euskal Herrian ikasitako egitura horiek mugaren bestaldera ekar zitezkeela ikusi genuen guk.

Bost urte beteko ditu aurten Kultur Maratilak. Zelaiko ibilaldia izan da?

A.L.: Pozik gaude; izan ere, zenbakietan sinistuko bagenu, oso positibotzat joko genuke Kultur Maratilaren bilakaera. Lehenengo urtean, oker ez bana-go, *Ornitorinkus* antzezlan eskaini zuten Maialen Lujanbiok, Judith Monterok eta Xabier Erkiziak; saio horretan hiru ikusle baino ez ziren egon. Zentzu horretan, zenbakiak gora egin dute azken urteotan; ehunetik gora ikusle bageneuzkan iaz. Beraz, esan daiteke jaialdia pixka bat egonkortu dela, edo euskarazko arte eszenikoen munduan, Leioan ere irla txiki bat sortu dugula.

Guretzat garrantzitsua zen Kultur Leioak euskarazko sorkuntzari bere espazioa eta indarra ematea; uste genuen sorkuntza-lan isolatuak eskaini barik, interesgarriagoa zela arte diziplina ezberdinak elkarrekin dantzatzeko duten egun batzuetako egitaraua prestatzea: musika, literatura, antzerkia, dantza, eskultura... denetarik dago. ◀



Lointek Giroan izango da

Lointek txirrindularitza-taldea aurkeztu zuten pasa den egunean, Sopelan. Aurten, Italiako Giorako gonbita lortu dute. Taldea gaztetu da; Dori Ruanok jarraituko du.

Kurtzio kultur etxean dozena-ka txirrindularitzazale batu ziren egunean, Ugeraga kirol-elkarteko emakumeen UCI talde profesionala ezagutzeko. Iaz ez bezala, lehiatu aurretik egin dute aurten aurkezpen soziala, taldearen zortzigarren denboraldian. Zalantza barik, Italiako Giroan parte hartuko duten albistea izan zen txalotuena; egitarauan, hala ere, laranjadunek

badute lehen mailako hainbat proba. Herbehereetako Ronde van Drenthe lasterketaz hasiko dira Lointekoak, lehen unetik World Tour zirkuituan lehiatzeko. Horrez gainera, Espainiako Kopa eta Txapeldun Saria irabaztea helburuen artean dute. Halaber, nazioartean hainbat klasikatan eta buelta txikitik parte hartuko dute, ohi den legez.


Emilio Ramos Ugeragako presi-

denteak aurtengo aldaketak azaldu zituen: «aurten talde gazteagoa dugu, baina ez horregatik ahulagoa. Urtero-urtero, Espainiako Kopan eta Euskaldun sarirako maila dugu, eta apurka-apurka, indartsuago bilakatzen gabiltza nazioarteko probetan. Adibiderik onena Sheyla Gutierrezen iazko garaipena izan zen, edo Eider Merinok Frantzean lortutako podiuma. Giroa bezalako lasterketa batera gonbidatzeak esan gura du ondo gabiltzala lanean». Ramosek Emakumeen Bira-ko antolatzaileei eskertu zien urteetan egindako ahalegina, asteotan kartelaren afera baino askoz garrantzitsua-

goa izan delakoan. Bestalde, Dori Ruano izango da berriro ere Lointekek teknikaria. Lasterkariet dagokienez, Eider Merino bizkaitarra izan zen aurkezpeneko protagonista, Gutierrezen hutsunea beteko duelako. Iaz, garai-
pen bi eta titulu bat lortu zituen Merinok. Beste taldekideak honakoak dira: Mar Bonnin, Maria Calderon, Empar Felix, Chloe Fraser, Rocio Garcia, Alicia Gonzalez, Lucia Gonzalez, Elisabet Llabres, Belen Lopez, Cristina Martinez, Teresa Ripoll, Anna Ramirez, Gloria Rodriguez, Alba Teruel eta Aurore Verhoeven. Sopelako Udalak eta Lointekek euren laguntza berretsi zieten. ◀

Castroviejo Iruñean da, lesioa azter diezaioten

Jonathan Castroviejo Movistar taldeko txirrindulari itzubaltzetarrak lepo-orno bat eta kubitua apurtu zituen domekan, eroriko batean, Algarveko Itzuliaren azken etapa amaitu ostean. Taldeko autobusera zihoala, bidean sartu zitzaion ikusle baten aurka talka egin zuen getxoztarrak. Movistar taldeak astelehenean baieztatu zuenez, txirrindulariak hautsita ditu seigarren lepo-ornoa eta ezkerreko kubitua. Castroviejo Malhaoko helmugatik taldeko ibilgailuak aparkatuta zeuden lekura bizikletaz jaisten zebilela, ikusle bat errepidean sartu zen, eta haren kontra egin zuen talka. Istripua izan ondoren, Faroko ospitalera



eroan zuten, ezker besoan eta lepoan mina zuela. Medikuen probek baieztatu egin zuten diagnostikoa: haustura, seigarren lepo-ornoa eta kubituan. Martitzenean, Iruñeko ospitale batera lekuz aldatuko zuten txirrindularia, bertan beste osasun-azterketa bat egin diezaioten. ◀

Himalaian pasatu zuen odisea film bihurtu du Iru-k

Iñigo Iruretagoiena Itxas-Argia menditaldeko kideak Himalaia mendilerroa zeharkatzeari ekin zion 2014ko abenduan, Nepalgo ekialdetik mendebaldera. Mendizale getxoztarrak film-dokumental batean batu ditu bakarrik eman zituen 74 egunean Kanchenjungatik Dolporaino egindako bidaia eta bizitako esperientziak. Datorren martxoaren 2an, eguaztena, dokumental hori ikusteko aukera eskainiko du Sopelako Munarrikolanda menditaldeak, gaztelaniaz. Gainera, egileak berak aurkeztuko du proiektua. Hitzordua Sopelako Kurtzio kultur etxean ipini dute, 19:30ean. Sarrera doakoa izango da. ◀



© EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA

Kantauri Surf Liga, berdinduta

Kantauri Surf Liga (KSL) erdialde-
ra heldu da. Sei jardunaldiren ostean, ez dago alde handirik taldeen artean. Bosgarren jardunaldira arte, Getxo ibili da ligako nagusi, baina uribekostarren atsedena astea ondo baliatu zuten zarauztarrek, berdintzeko. Zapatuan, Artzabal Ogoñope Surf Taldearen aurka neurtuko dira getxoztarrak, Karraspio hondartzan. ◀

Sahara eta Astrabudua, irabazle

Jon Salvador atleta erandioztarrak ezin izan zuen Saharako Maratoia irabazi, pasa den martitzenean egindako 16. edizioan. Salvador hasieratik sartu zen lasterketaren buruan, Vicente Grande Duque espainiarrazagaz eta Aljeriako hainbat atletagaz osatutako taldean. Gerora, Grandek eta Salvadorrek distantzia hartu zuten, baina erandioztarrak arazoak izan zituen hanketako muskulu bikiakaz, eta atzean lotu zen. Hala ere, Salvadorrek Afrikara abiatu aurretik jakinarazi zuen parte hartzearen kontu garrantzitsuenak ez zirela kirol-arlokoak, elkartasun-proiektuak baino. Alde batetik, aurtent probako parte-hartzaileek bat egin

zuten Saharan autodeterminazio-erreferenduma egin dadin eskatzeko, eta, ohi den legez, giza laguntzagaz joan ziren hara: botikak, kirol-gaiak, jostailuak, jakiak eta eraikuntza-materialak eroan edo diruz lagundu zituzten, hezkuntza-proiektuak babesteaz gainera; azken uholdeen ostean behar handia dago. Beste aldetik, Saharara joan barik bost urte eman ostean, Salvadorrek elkartasuna Erandion bertan ere bana dadin lortu du. Hala, La Caixa bankuaren fundazioak 1.000 euroko ekarpena egin dio Astrabuduko Gorbide elkarteari. Atleta erandioztarrak 2010ean parte hartu zuen lehenengo aldiz Saharako maratoian. Irabazi eta marka hautsi zuen. ◀



Erandioko Udalak ere lagundu du elkartasun- eta kirol-espedia. ◀



Santutxuko Sei Izar Krosean ere nagusitu zen Garcia urtarrilean. BERTON

Igor Garcia, Euskadiko Kros txapelduna

Igor Garcia Getxo Atletismo Klube-ko korrikalariak urrezko domina jantzi zuen beteranoen mailan, otsailaren erdialdean Abadiñon jokaturako Euskadiko Kros Laburreko Beteranoen Txapelketan. 5.000 metroko ibilbidea osatzeko, 18.42ko denbora behar izan zuen getxoztarrak. Dene-

ra, 112 partaide izan ziren 35, 40, 45 eta 50 urte azpiko mailetan. Garciaik segundo bateko aldea atera zion Tolosa atletismo-taldeko Sergio Roman bigarren sailkatuari, eta lau segundo Santurtzikoko taldeko Abdelilah El Manaia hirugarrenari. Era berean, Alfonso Alvarez Getxo Atletismo Klube-ko taldekidea seigarren sailkatu zen beteranoen mailan, 19.27ko denboragaz; eta hirugarren postua ere lortu zuen 40 urte azpiko lasterketan. 4.000 metroko proba irekian, ordea, Igor Garcia 22. postuan geratu zen. ◀

Biobizz, Uso Zuria eta As de Guia VII, Abrako buru

Pasa den zapatuan, Abrako Itsas Errege Klubak antolatutako Abrako Gizarte Sariaren hiru-garren estropada egin zuten. Aurreko saioan ez bezala, kategoria denek burutu zuten proba. Hala ere, zapatuko estropada bigarren ahaleginean egin zen, arrastian eta ipar-haizeagaz; hego-haizea zebilela-eta goizeko txanda bertan behera utzi behar izan baitzuten antolatzaileek.

A-B modalitatean, Mikel Emaldiaren *Maitena* ontziak irabazi zuen puntuazio bikoitzeko proba. Ostera, *Uso Zuria*-k eutsi zion lehenengo saioan

lortutako lidergoari, eta sailkapen nagusian garaile izan zen 5 puntu-gaz. *Maitena* eta Lorenzo Mendiaren *Ashandar WOP* bere atzean sailkatu ziren, zortzina puntu-gaz. C kategorian, *As de Guia VII* belaontziak hiru puntuko aldea atera zion Javier Sanchidrianen *Kantarepe Iru*-ri. Amaitzeko, J 80 modalitatean, Jose Azquetaren *Biobizz* ontziak abantaila handia zeukan azkenengo probaren aurretik, eta garaipen argia lortu zuen 6 puntu-gaz. Bigarrena Ramon Zubiagaren *Mando*-vi izan zen, 16 puntu-gaz, eta podiuma *Jet Set*-ek osatu zuen. ◀



Maite Arraiza Aramendia atleta getxoztarrak eta Kepa Vallejo Ugartek irabazi zuten Sopelako Duatloiaren 11. edizioa, pasa den zapatuan. Arraiza Saltoki Trikidetik talde nafarrazagaz lehiatu zen, eta taldekako sailkapenean ere garaipena lortu zuen. © ALBERTO AGUJETA - EUSKADIKO TRIATLOI FEDERAZIOA

saiazgetaria
HOTEL
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus



Astrabudusak zorte ona eman du



Euskadiko 18 azpiko taldeko Alex Ujiak hiru gol sartu zituen San Lorentzon, Asturiasen aurka.

Pasa den aste-akabuan jokatu zen Astrabuduko San Lorentzo futbol-zelaian autonomien arteko Espainiako futbol txapelketaren bigarren fasea, 16 eta 18 urte azpiko mutilen kategorietan. Bertan, Euskadiko gazte eta kadeteen selekzioak bina partidatan nagusitu, eta finalerako sailkatu ziren, pasa den denboraldiko txapelketa biak berriro irabazteko aukera erdietsiz. Kadeteen taldea 4-0 gailendu zitzaion Asturias, baita Melillari ere, 3-0. Oskar Tabuenka selekzionatzailea pozik agertu zen mutikoen jokoagaz, eta dema bieran hobeak izan zirela iritziz. Erandioko entrenatzaile ohiak Itzurbaltzeta taldeko Unai Lopez eta Romoko Markel Echabe deitu zituen. Era berean, herrialde horietan egin zieten aurre Jose Luis Txakartegiren gazteek kategoria nagusiagoan. Asturiasen aurka estuago ibili ziren, eta 4-2 izan zen akabuko markagailua. Melillaren kontra, ordea, kadeteek baino gol bat gehiago sartu zuten afrikarren atean. ◀

Futbol 9ko liga sortu dute neskontzat

Emakumezkoen futbolaren formazio-sistemak zelan hobetu ikertu zuten iaz Bizkaiko Foru Aldundiak eta Kimesport aholkularitza-enpresak. Bizkerre, Bizkeneskak, Leioako Emakumeak, Erandioko Betiko Neskak eta beste bost talde aztertu ondoren, atzeman zuten haur-kategorian 9 jokalariren futbola zela bitartekorik onena. Hala, pasa den otsailaren 13an Aldundiak martxan ipini zuen futbol 9ko liga berria. Partida biren ostean, Leioako Emakumeak taldea sailkapenaren buru da, hiru puntugaz; Bizkerre eta Bizkeneskak taularen amaieran daude. ◀

Athletic eta Getxo Futbol Eskola, elkarlanean

Getxo Futbol Eskola bere formazioa hobetzen dabil asteotan, Athletic eskerrera. Pasa den otsailaren 18an, Getxoko entrenatzaileek mintegi bat jaso zuten. Baina prestakuntzarik garrantzitsuenak futbol-eskolako jokalarien gurasoak jasotzen dabilta, Bilboko klubari esker hori ere bai. Pasa den astelehenean, «Gurasoentzako psikologia» berbaldea eskaini zuen Maria Ruiz de Oña psikologoak. Datorren astelehenean, 19:00etan, «Elikadura eskolako kirolean» izango dute berbabide Athleticen hainbat medikuk, Fadurako berbalde-aretoan. ◀

Arenas eta Leioa, bizikidetzaren alde kirolean

Arenas futbol-klubak eta Leioa Kirol Elkartek bat egin dute Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak bul-tzatutako Kiroleko Indarkeriaren aurkako Kontzientiazio Asteagaz. Hilaren 28ra arte iraungo duen kanpainan, klubek milaka esku-orri banatuko dituzte, kiroleko jokabide onen dekalogoaren berri emateko. «Ezarritako arauak urratzen dituzten jokabideak zigortzeko espedienteak irekitzera jo aurretik, beharrezko da kontzientiazioaren eremua lantzea», Estefania Beltran Ruiz de Heredia Segurtasun sailburuaren arabera. ◀

Hauteskundeak, abian Plentziako Kirol Elkarteak

Hauteskunde-egutegia martxan du daborduko Plentziako kirol Elkartek. Hilaren 12an egin zuten Batzar Nagusia, eta Salva Ruiz aukeratu zuten hauteskunde-batzordeko presidentea. Klubak errolda erakutsiko du eguen honetara arte, eta barikuan helegiteak aurkeztu ahal izango dira errolda horren aurka. Hilabetea amaitu arteko epea izango du Ruizen batzordeak helegiteak ebazteko. Martxoaren 1ean, berriz, hautagaitzak aurkezteko epea zabalduko da, maiatzaren 12ra arte. Balizko helegiteen ostean, hauteskundeak maiatzaren 26an izango dira. ◀

Itñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Telletxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41
Algorta

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

GAVRKO
1967

GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



Stock Euskadi

azokarako 4 sarrera bikoitz dauzkagu.
Gura dituzu?

Martxoaren 4tik 6ra bitartean Stock Euskadi azokaren X. ekitaldia egingo da BECen, Bizkaiko Outletik handiena!

Martxoaren 1a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Zorion agurrak 5€

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37



IRATXE
BERANGO
25 metroren partez

Zorionak, Iratxe! Aurtengoa urtebetetze berezia izango da, amatu! Besarkada potolo bat denon partez, maite zaitugu!



IRANTZU
USANSOLO
Martikoenatarron partez

Gure usansolotar kutunenaren urtebetetzea da; zorionak, poxpolin! Zurito batzuekatz ospatuko dugu datorren barikuan? Mosu potolo bat guztion partez!



IKER
ALGORTA
Martikoenatarron partez

Erredakzioko gaztetxo zahartzen ari zaigu! Zorionak, Iker! Laranja-zukua gustura hartuko genuke zure urtebetetze egunean... kar, kar. Muuaaax

Sudokua

9			5	7				
				4				8
8	4	2		6				
						7		
			2	9				
				5	7	2	3	
2							3	6
5		1						9
	8	9				1	7	

Gogoan hartu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

4	7	1	5	2	9	6	8	3
2	6	8	7	3	7	1	9	5
6	5	3	9	1	8	4	7	2
1	3	2	7	5	4	8	6	9
5	8	9	1	6	2	7	3	4
9	4	7	9	8	3	5	2	1
7	1	5	3	9	6	2	4	8
8	9	6	2	4	1	3	5	7
3	2	4	8	7	5	9	1	6

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Zuk ondotox dakizun urtebetetze hori heltzeaz dago. Daborduko pentsatuta daukazu zein litzatekeen oparirik biribilena?



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Egon zaitetz lasai. Oraingo denbora falta da udaberria heltzeko. Gainera, batzuei eragiten badie ere, zeu ez zara horietako bat.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Inguruan apur bat galdetuz gero, ez duzu zaila izango jatetxe egokia aurkitzea. Halere, ez da hori gehien kezkatu behar zaituena, afaltiarra baizik.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Gertukoak hasi dira pentsatzen ea Diogenesen sindromea daukazu. Askotan altxor politak topa daitezke botata, baina krisiagaz gero eta gutxiago.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Hemendik denbora gutxira, oparitoxa jasoko duzu. Ez da beste munduko gauza izango, baina poztasun handia emango dizu.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Ezkontza-kanpaiak entzun dituzu, eta, badaezpada, ezkatatzeko egin duzu karraderan. Lasai, oraindino ez zaituzte harrapatu, baina atera diru-zorroa.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Medikuak gozotasunez bizitzeko aholkua eman dizunean, ez zebilen gozokiak jateaz berbaz, gehiago zaintzeaz baino.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Haizeak nondik jo, haize-orratza harantz. Horrela zabilta azken boladan. Eta bitartean, burugogor fama ipini dizute auzoan. Zelan da posible?



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Inoiz ez duzu astirik izan etxeko konponketak egiteko, hori baino aspergarriagoa den kontu berri hori agertu arte. Segi bazterrek txukuntzen!



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Ez dira zure bihotzerako garai onak, baina alde positiboari adi egon. Zuen hain azkar desagertu bada, merezi ez zaituen seinale.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Orain arte, zure superstiziorik okerreina horoskopoa hau irakurtzea zen. Baina bide okerretik zoaz, eta orain edonon bilatzen duzu Delfoseko orakulua.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Badago jende alferria eta langilea. Badira pertsona ustelak eta ondraduak. Kontrakoa ahalegin du arren, beti izango zara bigarren multzokoa.

Constantino, Algortako tenoreare



Constantino: Carusorekin lehiatu zen Algortako tenorea.

2018an jaio zenetik 150 urte beteko dira; 2019an, bere heriotzaren 100. urtean Getxok zor dio zerbait hain artista handiari.

Florencio Constantini»; «Constantineau»; «Ortuellan (Gipuzkoa) jaioa»; «jatorriz, Algortakoa»; «New Orleansen *Otello* kantatu zuen»; «Milango Scala opera antzokiaren parekoa eraiki zuen Bragadon»; «*Sevillako Bizargina* antzeztan ari zela, baxua akabatu zuen ezpataz»; «ezin kantatzeari utzi eta alkandora hertsagarria jarri behar izan zioten oholztan bertan»; «*La Gioconda* operako aria ezaguna kantatu zuen Popocatepelt mendiaren gailurrean, eta haize izoztu batek eztarria hautsi zion»...

Aurreko pasarte horrek errakuntza nabarmenak ditu, bai eta kontraesanak eta datu faltsuak ere Constantinoren jatorriaz eta haren bizitzaz. Ez zuen sekula *Otello* antzeztu, ezta egundo inor hil ere oholztaren gainean. Lerro horiek, oster, argigarriak dira tenorearen historia zer bihurtu den ulertzeko: kontakizun zatikatua, alegia, legenda kutsuz, errakuntza eta neurrigabekeriaz beterik, eta, batez ere, ahanzturan murgildua.

Florencio Constantino Carral Bilbon jaio zen 1868an eta Mexikon hil zen 1919an, 51 urte zituela. XX. mendeko lehen bi hamarkadetan, operaren eliteko tenorea izan zen. Distira handiz nabarmendu zen orduko izarrarte lirikoan: Enrico Caruso, Luisa Tetrizzini, Riccardo Stracciari, María Barrientos, Titta Ruffo, Feodor Chaliapin, Alice Nielsen eta José Mardones baxu arabarraren mailako izarrekin batera. Argazkiak, egunkari eta aldizkarietako kronikak eta hainbat soinu-grabazio bilbotar horren handitasunaren lekuko dira. Alabaina, errege-erreginen kutuna izan eta munduko koliseo nagusietan txalotua izan

arren, gaur egun gure oroimenerako berreskuratu beharreko pertsonaia dugu Constantino.

Lehen urteak: meatzari eta laborari

Florenciok oraindik 10 urte ez zituela, familiak Ortuellara jo zuen, aitzak lanpostu bat hartu baitzuen orduan pil-pilean zegoen burdinaren meatzaritzan. Constantinok ere, 12 urteko mutil koskorak, hantxe jardun zuen makinista, lokomotor txiki batean minerala garraiatzen. Lokomotorrari, gerora, jada tenore ospetsua zela, haren izena jarriko zioten. Gaztetako

Dena izan, eta dena galdu zuen: maitasuna, dirua, ospea, ahotsa eta, azkenean, burua ere bai

oroimen gehienak, beraz, ezkerraldeko herrian kokatuak izanik, ez da harrigarria aipamen biografikoe-tan Bilbo eta Ortuella —batzuetan, Algorta ere bai— nahastea tenorearen sorterrira aipatzerakoan.

Luisa Arrigorriaga Larrazabal emaztegai algortarra lagun, 21 urterekin, Argentinarako hautua egin zuen. Mundu Berriko oihartzunek liluratuta eta foruen abolizioak ezarritako soldadutza luzeari muzin eginez, abentura amerikarrari ekitea erabaki zuen bikoteak, beste hainbat gaztek bezala. Buenos Airesera ailegatu eta Panpako Bragado hirian finkatu zi-

ren. Florencio gari-jotze lanetan aritu zen, eta hantxe jaioko ziren bere lau seme-alabak. Sasoi berean, Constantinok zainetan zeraman odol beroa 93ko Iraultzaren zerbitzuan jarri zuen, eta gertakari larri batzuk tartean, kartzela ere pairatu zuen.


Constantino kantari

Baina aldi berean, Constantino gaztearen kanturako zaletasuna eta aparteko gaitasunak azaleratzen hasi ziren, festa eta ospakizunetan. *La Vasconia* aldizkari argentinarraren sortzaile Francisco Gradmontag-nen gidaritzapean, tabako-enpresari aberats baten mezenasgoa lortu, eta musika ikasten hasi zen Buenos Airesen, Milanera joatea erabaki zuen arte. Milango garai negargarria izan zen Constantinoren-tzat. Emaztea eta umeak Algortara bidaltzeaz gain, hamaika trikimailu baliatu behar izan omen zituen —batzuk, inondik ere ez eredugarriak— biziari eta prestakuntzari eustearren.

Alabaina, ailegatu ziren hainbeste nekaldiren zorroneko ordainak, eta karrera arrakastatsu bati ekin zion Italia, Herbehereak, Errusia, Polonia eta Portugal herrialdeetan zehar. Madrilgo Errege Antzokian kantatu eta Gayarrerren oinordeko izendatu zuten. Urte berean (1900) itzuli zen lehenengoz sorterrira, laudorioz beteriko kronikek iragarrita. Arriagan egin zuen debuta. *Nerbioiko Lohengrin*-ek —Bilboko aldizkari batek halaxe bataiatu zuen— etxekoan txaloak eta berotasuna bete-betean jaso zituen *Rigoletto*-ko Dukea eta *La Gioconda*-ko Enzoren roletan, besteak beste; eta *Gernikako Arbola* kantatu zuenean, ohol-tza ia estaltzea lortu omen zuten dozenaka txapel gorrietako bat buruan jantzita, emozioak gainezka egin zuen; delirioa izan zen, kroniken esanetan.

Constantino eta Getxo

1903an Villa Luisa izeneko erresidentzia dotorea erai-



Konrado Mugertza Urkidi
Florencio Constantino, ópera de gloria y olvido, 2013 Biografía nobelatua
Argitaletxea: Muelles de Uribitarte

Goian: Constantino antzokia bere inaugurazio-saioan, 1912an. Azpian: Columbia diskoetxearen publizitatea. Ondoan, Constantino, emaztearekin eta lau seme-alabekin. Eta, Vitalianok egindako karikatura.

ki zuen Algortan; hantxe eman zituen, familia giroan, mendearen lehen hamarkadako udaldiak. Eraikinak bere horretan dirau gaur egun, etxaurreak aldaketak jaso baditu ere. Haren aurrean, «tenorearen landan», Jose Luis Butron eskultoreak harriz egindako busto xume bat dago. Constantinok Getxon daukan oroi-garri bakar horrek ohartarazten digu tenoreak Algortarekin izan zuen lotura sendoa, eta gure udalerriak berarekin duen zor nabarmena, areago ezagutza faltaz —seguru— eskergabekeria baino.

Constantinok bost denboralditan kantatu zuen Euskal Herrian, 1900 eta 1904 bitartean, gehienak Bilbon, baina Donostian ere bai. Baina kantari jardueraren osagarri, oso gustukoak zituen zezenak eta txakolindegia; sarritan, bere ohorez antolatzen ziren afari eta ospakizunetara joan behar izaten zuen, eta beti ere, amaieran, bere kantuekin adierazi esker ona. Adiskide izan zituen Euskal Herriko garaiko pertsona nabarmenak, hala nola Miguel Unamuno, Ramiro Maeztu, Aureliano Valle, Arrue anaiak eta Ignacio Zuloaga pintoreak, edo Mazzantini toreroa.

Algortan egon zen 1911n, Dolores alaba nagusiaren ezkontzara etorrita. Orduan ez bazekien ere, hurrezkeror ez zen berriro itzuliko Euskal Herrira. Ordurako, senar-emazteen arteko harremana larri jota zegoen. Ogibideak ezartzen zizkion urruntasunak eta bakardade tarte luzeegiek eragin handia izan ei zuten bere emazte Luisarekin behin betiko hausteko; aitzakia horiek gutxi balira, bizitza artistikoaren amodio itxuraz saihestezinek —bere esanetan—, eragin erabakigarria. Hiru urte geroago, beste alaba, Rosa ezkondu zen, Rafael Padrórekin. Horretara, jada, aita ez zen etorriko.

Constantino mundu mailan

Debut absolutua Montevideon 1896an egin ostean, hamarkada batean karrera sendotuz joan zen Argen-

tina, Uruguai eta European barrena; 1906tik aurrera, ordea, Estatu Batuetara eta Hego Amerikara mugatuko zuen bere eremu artistikoa. Alice Nielsen eta Florencio Constantino modako bikote lirikoa izan ziren AEBetan lauzpabost urtez. *La Bohème* operaren emandiek inoizko mailarik gorena jo zuten; eurak biak izan ziren Bostongo Operako lehen izarrak. Zeno musika-kazetari entzutetsuaren esan-idatziak dira: «Rodolfo pertsonaia Constantinoren kreazio finenetakoa da. Gogoan dut Bonzik rol hori lehenengoz kantatu zuenean, eta hainbat aldiz entzun diot Carusori. Ez dago tenore bilbotarraren perfekzioa gainditzen duenik, eta zalantzak ditut inoiz parekorik izan ote den ere». Metropolitanen 1911ko neguan *Lucia di Lammermoor* eman zuenean, Carusorekin itsututa zegoen New Yorkeko prentsa italiarrak berak ere aitortu egin behar izan zuen Constantinoren maisutasuna.

Arriagan, 1900ean, Gernikako Arbola kantatu zuenean, txapel gorria buruan, delirioa izan zen

Bere izena eramango zuen antzokia eraiki zuen 1912an Argentinako Panparen erdian, tenore bilbotarraren *bilbainada*-tzat kalifika daitekeena. Tenplu lirikoa Constantinok Bragadori, bera etorkin gazte zela hartu zuen herriari, egiten zion opari ederra zen; baina hori ez ezik, ergeltasun eta handikeria apur batzuen ondorio ere bai. Antzokia egun bateko lorea izan zen, eta hondamendia Constantinorentzat; eraisteko puntu-puntu egon zen, baina zorionez, herriko ekintzaile adoretzu batzuei esker, zutik iraun zuen. Ordutik aurrera, arazo ekonomiko, judizial eta

sentimentalak gutxi ez eta, ahotsaren arazoak gehitu zitzaizkion. Karrera artistikoaren gainbeheraren hasiera zen.

Constantino garaiko tenore handienetakoa izan zen, baina orduko beste artista batzuei bezala, Carusoren distirak itzal nabarmena egin zion. Horrez gain, hain bereak zituen izaera menderakaitza eta behar bezala neurtu gabeko zintzotasun eta aitoren asko ez zitzaizkion mesedegarri izan hainbat enpresari boteretsu eta ustelekin izandako tratuetan; prentsarengandik ere, laudorio handienekin batera mespretxu mingarriak jaso zituen; aberats izan eta erabateko porrot ekonomikoa jasan zuen; gehiegitan bisitatu zituen epaitegiak, eta kartzelaren lotsa ere hezur-haragietan jasan zuen.

Constantinorengan bat egiten dira tenore erromantikoa eta gizon abenturazalea, eta nobelako pertsonaia peto-petoa taxutzen dute. Dena izan zuen, eta dena galdu zuen: maitasuna, dirua, ospea, ahotsa, eta azkenean, burua ere bai. 1919ko azaroan hil zen, Mexiko Hiriko zoroetxe goibel batean, bakardadean. Gero historiak sakondu egin du zauria eta bere oihal ilun eta bidegabeaz aparteko artista eta gizona ezkutatu.

Baina hil ostean ere eman zuen zer esanik Constantinok. Izan ere, haren izpirituak ia mende oso bat itxaron behar izan zuen behin betiko atsedena hartzeko. Denbora horretan haren gorpuzkiek hamabi egonaldiko kalbario sinesgaitza egin zuten: besteak beste, bankuetako kutxa gotorrak, Buenos Aireseko Laurak Bat Euskal Etxea, hiriburuko katedral ortodoxo errusiarra, edo Julio Goyen bere biografoaren bulego pribatua. Azkenik, 2012ko azaroan, ikurrin batez eta Argentinako bandera batez estaliak, duela mende bateko antzoki eta gaurko Bragadoko Florencio Constantino Kultura Zentroaren mausoleoan kokatu ziren berariaz antolatutako ekitaldi solemne batean. ◀



Flashback

Romoko lagun-taldea, futbol 7ko txapelketan, 1953an

Romo/Itzumbaltzetako Oblatos abadeen zelaian atera zuen lagunarte Rhorrek argazkia, orain dela 60 urte baino gehiago. Orduan, futbol 7ko txapelketa jokatu zutela kontatu digute. Ostera, deigarria da futboleko egiteko ohiko janzkerarik ez daramatela; partida ostean ala aurretik egingo zuten argazkia, ala, agian, orduan, futboleko lagunartean jokatzeko ez zuten jantzi berezirik beharko...

Zutunik, ezkerretik eskumara:

Carlos Palomero, Jose Mari Uriarte, Iñaki Garabieta, Pedro Serna eta Jose Luis Aguayo.

Makurtuta, ezkerretik eskumara:

Juantxu Gancedo, Jesus Mari Ventades eta Tomas Aguado.

© TOMAS AGUADO ZUBILLAGAK GETXOKO LIBURUTEGIARI UTZITAKO ARGAZKIA



Uribitakora

TESTUA

Beñat Vidal Gurrutxaga

DOINUA

Zer da gaur Donostian

ARGAZKIA

Hodei Torres

Uribitakoran parte hartu gura duzu?

Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Karabana

Bisitatuak ditu
Toulouse, Frankfurt, London...
Lotarako lekua
baitzeukan edonon.
Bart Berlinen, gaur Pragan,
bihar... ba Durangon!
Nahiz karabana honek
itxura hau emon,
gaur geldi dago baina
ez da geldi egon!

Hori zen gurasoen
gastaro askea...
Behin erabaki zuten
nonbait ni haztea;
horrekin bat etorri
zen hura ahaztea,
orain pentsatu dute
hau saltzen hastea...
Nork erosiko die
holako trastea?

Hor erantzuna, hasi
zarenez galdezka.
Giltzak ostu dizkiet
eta hemen festa!
Kanpoan ez da giro,
guk ez hotz, ez kezka...!
Ez da Opel Corsa bat,
ez da Ford Fiesta...
guk txortan egiteko
ez da txarra, ezta?



Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua